

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 4a

99. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00021. “Herritarren irisgarritasuna oinarritzko osasun laguntzan (2018-2023)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00021. “Herritarren irisgarritasuna oinarrizko osasun laguntzan (2018-2023)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

2024ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Herritarren irisgarritasuna oinarrizko osasun laguntzan (2018-2023)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Adieraztea “Herritarren irisgarritasuna oinarrizko osasun laguntzan (2018-2023)” fiskalizazio-txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko irailaren 2an


Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

HERRITARREK OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAN DUTEN IRISGARRITASUNA (2018-2023)



Azken 5 urteetan, 64 urtetik gorako biztanleria %11 hazi da, eta 15 urtetik beherakoa %4 jaitsi da.

Zifra giltzarriak:



Etorkizunari begira:

787 erretiro aurreikusten dira 10 urtean, eta horietatik 239 fakultatiboena dira.

Familia medikuntzako BAMEn kasuan, eskainitako plazen **%63** baino ez dira bete 2023an eta 2024an.

Familia medikuntzako BAMEn kasuan, amaitu duten pertsonen **%50**ek bakarrik egiten du lan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Aurkibidea	Orrialdea
TERMINOEN GLOSARIOA.....	5
I. SARRERA	7
II. HELBURUAK ETA IRISMENA.....	7
III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.....	12
IV. OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN ERANTZUKIZUNA.....	14
V. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	15
1. GEHIGARRIA. OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZA OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAN	16
1.1 Alderdi orokorrak.....	16
1.2 Herritarren zitazioaren kudeaketa oinarrizko osasun laguntzan.....	22
2. GEHIGARRIA. METODOLOGIA ETA ARAU ESPARRUA.....	25
2.1 Metodologia.....	25
2.2 Aplikatzekoa den oinarrizko arau esparrua	25
3. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO OHAR ETA AURKIKUNTZAK	26
3.1 Lehen helburua. Herritarrei arreta emateko O-NOZeren bitartekoen azterketa	26
3.2 Bigarren helburua. OOLrako irisgarritasuna bermatzeko hartutako neurriak	35
3.3 Hirugarren helburua. OOLko baliabideen erabilera eta herritarrek irisgarritasunari buruz duten pertzepzioa.....	45
3.4 Laugarren helburua. OOLrako irisgarritasunean ekitate printzipioa betetzea, osasun eskualde oinarrizkoen artean	55
3.5 Bosgarren helburua. OOLko azpiegituretarako irisgarritasun fisikoa	63
ERANSKINAK.....	66
1. ERANSKINA. AZTERTUTAKO LAGINETAN SARTUTAKO OSASUN ETXEEN ZERRENDA	66
1.1 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean jasotako telefono deien analisis sartutako 31 osasun etheen lagina	66
1.2 2023ko urtarrilean produktibitate ordainketaren azterketan sartutako bost osasun etxeren lagina.....	67
2. ERANSKINA. OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAKO ORGANIGRAMA, OSASUN BARRUTIEN ARABERA.....	68
3. ERANSKINA. OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOEN ZERRENDA, KATEGORIAREN ARABERA.....	69
4. ERANSKINA. PAZIENTEEK ESKATUTAKO KONTSULTETARAKO SARBIDERAKO PROZEDURA	71
5. ERANSKINA. CIAS BAKOITZARI ESLEITUTAKO OTIAK, OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOAREN ARABERA (2018-2023)	72
6. ERANSKINA. OTIEN ETA BENETAKO LANGILE BALIOKIDEEN ARTEKO RATIOA, OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOAREN ARABERA (2018-2023)	76
7. ERANSKINA. ITXAROTE EGUNAK, OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOAREN ARABERA (2023)	81
8. ERANSKINA. DEIEI BURUZKO ADIERAZLEAK, OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOAREN ARABERA	83
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK.....	85
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENA DELA-ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA	88

TERMINOEN GLOSARIOA

- **ATENEA:** oinarrizko osasun laguntzako zitazioa kudeatzeko erabiltzen den aplikazioa.

- **Lanpostuko absentzia:** txosten honen ondorioetarako, termino horrekin izendatuko ditugu pertsona batek bere lanpostuan izan dituen justifikatutako absentzia guztiak, baldin eta lanegun bati dagozkion orduetan izan badira eta babes legala duen kausa edo arrazoi baten ondorioz izan badira.

Absentzia horiek honako arrazoi hauengatik izan daitezke: aldi baterako lanerako ezintasuna, gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz; lanpostuko absentzia isolatuak, gaixotasunaren edo istripuaren ondorioz, aldi baterako lanerako ezintasunagatik baja parterik behar ez denean; edo beste arrazoi batzuk, araudian aurreikusitako oporrak, lizentziak eta ordaindutako baimenak barne.

- **Nafarroako emaitzak aztertzeke basea (Bardena):** osasun emaitzak ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa ematen duten jarduketan, programen eta datu baseen multzoa.

- **Identifikazio autonomiko sanitarioko kodea (CIAS):** fakultatibo bati esleitutako pazienteen kupoa identifikatzen duen kodea.

- **Batez besteko adin haztatua:** OOLko langileen adinaren kalkulua. Honako formula honen arabera egiten da:

$$\frac{\sum Adina * Pertsona\ baliokideak}{\sum Pertsona\ baliokideak}$$

- **Maiztasuna:** pertsona bat zenbat aldiz joan den kontsultara denbora tarte jakin batean.

- **Lanpostuko absentzien estalduraren maila:** ratioa, lanpostuko absentziak ordezkatzeko aldi baterako kontratatutako orduen eta egindako produktibitate orduen batukaria zati lanpostuko absentzia ordu guztiak.

$$\frac{\sum Kontratatutako\ orduak + \sum Produktibitate\ orduak}{\sum Absentzia\ orduak}$$

- **Zerbitzua emateko estalduraren maila:** benetako langile baliokideen eta oinarrizko unitate asistentzialetan aurreikusitako langileen alderaketa.

$$\frac{\sum Benetako\ langile\ baliokideak}{\sum Aurreikusitako\ langile\ teorikoak}$$

- **Absentzien indizea:** langile baliokide bihurtutako lanpostuko absentzia orduen batukariaren eta langile baliokideen arteko zatidura:

$$\frac{\sum Absentzian\ dauden\ langile\ baliokideak}{\sum Langile\ baliokideak}$$

- **Langile baliokideak:** OOLn lan egin duten langileen ordu teorikoak, kontratuaren iraupena kontuan hartuta, zati 1.790 orduko lanaldia urtean.

$$\frac{\sum Zerbitzuko\ ordu\ teorikoak}{1790}$$

- **Benetako langile baliokideak:** langile baliokideak, benetan emandako orduak kontuan hartuta.

$$\frac{\sum Zerbitzuko\ ordu\ teorikoak - \sum Absentzian\ emandako\ orduak}{1790}$$

- **Tableau:** emaitzak aztertzeke plataforma; datuen ustiapen masiboak egiten ahal ditu.

- **Osasun txartel indibiduala (OTI):** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazioak eta zerbitzuak erabiltzean pertsonak identifikatzeko dokumentu ofiziala, beharrezkoa eta nahikoa.
- **Oinarrizko unitate asistentziala:** familia medikuntzako edo pediatriako fakultatibo batek eta erizainen kolektiboko pertsona batek osatutako taldea. Pazienteen kupo bakoitza oinarrizko unitate asistentzial bati esleitzen zaio.
- **Osasun eskualde oinarrizkoa:** oinarrizko osasun laguntzaren lurralde esparru gisa balio duten geografia eta biztanleria mugapeak, biztanleriari oinarrizko osasun zerbitzuetarako sarbidea bermatzeko.
- **Osasun eskualde oinarrizko berezia:** oinarrizko osasun laguntzako talde bat eratzea edo haren funtzionamendua bereziki zailtzen duten sakabanaketa, isolamendu eta irisgarritasun baldintza jakin batzuk, mugako egoera edo egoera bereziki deprimitua dituzten eskualdeak dira. Jarduera bereziko eremutat hartzen direnez, laguntza eta baliabide bereziak eta handiagoak ematen zaizkie, eskualde horietan osasun sistemak gainerako eskualde oinarrizkoen antzeko kalitate maila izan dezan.

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat eta 2023rako jarduketa-programaren arabera, herritarrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (aurrerantzean, O-NOZ) oinarrizko osasun laguntzan (aurrerantzean, OOL) duten irisgarritasuna fiskalizatu du.

Landa lana 2024ko urtarriletik maiatzera bitartean egin zuen lantalde batek, zeina auditoretzako hiru teknikaririk, sistema informatikoetako erdi mailako teknikari batek eta auditore batek osatu baitzuten. Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko eta administratiboek laguntza eman zuten.

Lan honen emaitzak egungo kontseilariari, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko aurreko kontseilariari, egungo zuzendari kudeatzaileari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko aurreko zuzendari kudeatzaileari jakinarazi zitzaizkien, alegazioak egin zitzaten, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusita-koarekin bat etorritz.

Epea amaituta, O-NOZeko Eriari Osasun Laguntza emateko zuzendariak alegazioak aurkeztu ditu, O-NOZeko zuzendari kudeatzailea ez dagoelako. Horiek aztertu ondoren, behin betiko txostenari erantsi zaizkio, ganberaren erantzunarekin batera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu O-NOZeko langileei, eta, bereziki, OOLkoei, eta Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko Zuzendaritza Nagusikoei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUAK ETA IRISMENA

Lan honen helburua 2018-2023 aldian herritarrek OOLn izan duten irisgarritasuna aztertzea izan da. Horretarako, helburu hauek zehaztu ditugu:

1. helburua: Zer bitarteko ditu O-NOZek herritarrei OOL emateko?
2. helburua: Nahikoak izan al dira O-NOZek herritarren OOLrako irisgarritasuna bermatzeko hartu dituen neurriak?
3. helburua: Nola erabili dituzte herritarrek OOLko baliabideak eta zer pertzepzio dute horien irisgarritasunari buruz?
4. helburua: OOLrako irisgarritasuna ekitatiboa al da osasun eskualde oinarrizkoen artean?
5. helburua: OOLko laguntza eraikinen ingurune fisikoa irisgarria al da herritarrentzat?

Helburu horiek azpigelburu hauetan banakatu ditugu:

1. helburua. Zer bitarteko ditu O-NOZek herritarrei OOL emateko?

Azpigelburuak	Irizpideak
1.1 Zeintzuk dira herritarrei arreta emateko bitartekoak?	Plantilla organikoko lanpostuak eta horien estaldura (2018-2023).
	OOLko plantillako langile finkoen altak eta bajak (2018-2023).
	Langile baliokideak (2018-2023).
	CIAS bakoitzari esleitutako OTIen konparazioa, araudian ezarritako optimoarekin eta O-NOZeren Oinarrizko Osasun Laguntzako Estrategian (2018-2023) jasotakoarekin.
1.2 Zer absentzia maila izan dute OOLko langileek?	Absentzien arrazoiak identifikatzea, aurreikusitakoak eta aurreikusi gabekoak bereiziz, eta horien orduen kuantifikazioa (2018-2023).
	Lanpostuko absentzia orduen kuantifikazioa, lanbide kategoriaren arabera (2018-2023).
	Lanpostuko absentzien indizea, lanbide kategoriaren arabera (2018-2023).
	Benetako langile baliokideak.
1.3 OOLko langileen etorkizuneko prestasunaren inguruko aurreikuspenak aldekoak al dira zerbitzua emateko?	OOLko langileen batez besteko adin haztatua lanbide kategoriaren arabera (2018-2023).
	Erretiro aurreikuspenak, OOLko lanbide kategoriaren arabera.
	OOLko barneko mediku egoiliarrentzako prestakuntzan izandako sarrerak (2018-2023).
	Deitzeke dauden lan publikoaren eskaintzak.

2. helburua. Nahikoak izan al dira O-NOZek herritarren OOLrako irisgarritasuna bermatzeko hartu dituen neurriak?

Azpigelburuak	Irizpideak
2.1 Zer baliabide ekonomiko erabili dira OOLrako irisgarritasuna mantentzeko?	Erabilgarri dauden kontratazio zerrenden azterketa, lanbide kategoriaren arabera.
	Lanpostuko absentziak ordezkatzeko aldi baterako langileen kontratuetara bideratutako gastua (2018-2023).
	Egindako kontratuen azterketa (2018-2023).
	OOLko langileen aparteko jardura ordaintzeko gastua (2018-2023).
	Bost osasun etxetako 2023ko urtarrileko aparteko jardueraren ordainketaren lagin bat berrikustea.
2.2 O-NOZek izan al du baliabide nahikorik OOLko langileen lanpostuko absentziak estaltzeko?	Lanpostuko absentzien estaldura maila, lanbide kategoriaren arabera (2018-2023).
	Pertsonal fakultatiboaren (familia medikuntza eta pediatria) zerbitzu prestazioaren estaldura maila (2018-2023).
2.3 Hartu al da bestelako neurriak irisgarritasuna errazteko?	2019-2020 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntza gradua ezartzea: eskaintako plazen bilakaera

3. helburua. Nola erabili dituzte herritarrek OOLko baliabideak eta zer pertzepzio dute horien irisgarritasunari buruz?

Azpigelburuak	Irizpideak
3.1 Gora egin al du herritarrek OOLko zerbitzuetan duten maiztasunak?	OTIa duen pertsona bakoitzak OOLko kontsultetan duen maiztasuna (2018-2023).
	OTIa duten pertsonen artean, kontsultetara joaten diren pertsonen ehunekoa, lanbide kategoriaren arabera (2018-2023).
	Herritarrek OOLko kontsultetan duten maiztasuna, bertaratzen den pertsona desberdin bakoitzeko, adin tartearen arabera (2018-2023).
3.2 Arreta mota bera jaso dute herritarrek?	Pazienteak eskatuta egindako kontsulten ehunekoa, kontsulta guztien artean (2018-2023).
	Aurrez aurre egindako kontsulten ehunekoa, kontsulta guztien artean (2018-2023).
3.3 Herritarrek beti joaten dira kontsultara?	Aurrez abisatu gabe kontsultara joaten ez diren pazienteen ehunekoa, egindako kontsulta guztien artean (2018-2023).
3.4 Egokia al da agenden diseinu teorikoa?	Hitzorduen konparaketa, agenden diseinu teorikoaren eta egindako jardueraren arabera (2018-2023).
	OOLko langileek egunero egiten duten batez besteko jarduera (2018-2023).
3.5 Positiboa al da herritarrek OOLrako irisgarritasunari buruz duten pertzepzioa?	Herritarrei OOLrako irisgarritasunari buruz egindako inkestak, 2018, 2019, 2021, 2022 eta 2023.
	Herritarrek OOLrako irisgarritasunari buruz egindako erreklamazioak (2018-2023).

4. helburua. OOLrako irisgarritasuna ekitatiboa al da osasun eskualde oinarrizkoen artean?

Azpihelburuak	Irizpideak
4.1 OOLko baliabideak ekitatiboak al dira osasun eskualde oinarrizkoaren arabera?	CIAS bakoitzari esleitutako OTIak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera (2018-2023).
	OTIen eta benetako langile baliokideen arteko ratioa, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera (2018-2023).
4.2 Luzatu al da hitzordua eskatzen denetik jasotzen den arteko denbora?	Paziente bakoitzak egintza bat eskatu eta jasotzen duen arte itxaron behar duen denbora, egintza motaren eta osasun eskualde oinarrizkoaren arabera (2018-2023).
	Familia medikuntzako kontsulta baterako itxaron egunak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera (2018-2023).
4.3 Osasun eskualde oinarrizkoaren arabera, zenbat tarte libre daude agendetan hitzordua eskatzeko?	Agendetako tarte libreak osasun eskualde oinarrizkoaren arabera, egun batera, hiru egunera eta astebetera, erreferentzia gisa 2024ko martxoaren 24a, maiatzaren 19a, maiatzaren 26a eta ekainaren 3a hartuta.
4.4 Telefono bidezko irisgarritasuna ekitatiboa al da osasun eskualde oinarrizkoen artean?	Baztertutako deien ehunekoa, 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean 31 osasun etxetan izandako dei guztien artean.
	Erantzundako deien ehunekoa, 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean 31 osasun etxetan izandako deien artean.
	Telefonoz artatutako pertsonen ehunekoa, 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean 31 osasun etxetan izandako deien artean.
	Telefonoz artatua izateko egindako deien kopurua, pertsona bakoitzeko, 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean 31 osasun etxetan.

5. helburua. OOLko laguntza eraikinen ingurune fisikoa irisgarria al da herritarrentzat?

Azpihelburuak	Irizpideak
5.1. OOLko laguntza eraikinek betetzen al dituzte irisgarritasun fisikoaren baldintzak?	O-NOZeren txostena, osasun barrutien arabera irisgarritasunari lotutako hainbat dimentsiotako baldintzak betetzeari buruzkoa.

Denborari dagokionez, lana 2018-2023 aldikoa da. Irismen objektiboa honako hauek osatu dute:

- Analisiaren xede diren langileak familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboen, familia medikuntzako eta pediatriako erizainen eta administrazioko langileen lanbide kategoriei dagokien ohiko arretarekin lotutakoak dira; kanpoan uzten dira OOLn larrialdiko arretan zerbitzuak ematen dituzten gainerako langileak.

- OOLri aplikatzen ahal zaion arau esparrua, txosten honekin batera doan 2. gehigarrian jasota dagoena.

- Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Arreta Komunitarioko Estrategia 2019-2022 aldirako.

- OOLra eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren osasun kategoria funtzionalera bideratutako baliabide ekonomikoekin lotutako aurrekontuko partidak.

- Plaza bakoitzari lotutako CIASen historiari buruzko informazioa, O-NOZek emana.

- SAP-GGBB informazioa, honako hauei buruzkoa: plantilla organikoan dauden plazak eta urte bakoitzeke abenduaren 31n duten egoera, kontratuak dagozkien ordukin, lanpostuan izandako absentsia orduak, aparteko jarduerako orduak eta kontzeptu horrengatik jasotako ordainsariak.
 - Lan publikoaren eskaintzei eta horien egoerari buruzko informazioa, O-NOZek emana.
 - Aparteko jarduerara bideratutako gastuaren lagina, 1. eranskinean 2023ko urtarrilerako ager-zen diren bost osasun etxeetan.
 - 2023ko abenduaren 31ko kontratazio-zerrendei buruzko informazioa, O-NOZek emana, eta 2023ko apiriletik abendura bitarteko zerrendetan egindako kontratuen eskaintzei buruzkoa, aurreko aldiatarako daturik ez dagoelako.
 - ATENEArako sarbidea erabiltzaile gisa eta aplikazio horretatik datuak neurrirra ateratzea.
 - Tableau SAP-GGBB datuak, okupazioari, nominari eta lanpostuko absentsiei buruzkoak.
 - Bardeako adierazleak eta metadatuak.
 - O-NOZeren 2018-2023 aldiko memoriak. 2023ko memoria oraindik ez da argitaratu, baina O-NOZek memorian jasoko diren datu batzuk eman dizkigu.
 - Akordioa Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin, besteak beste, ekintza medikoen iraupena-ekin edo 2023ko otsailean sinatutako produktibitatea gauzatzeko baldintzekin lotuta.
 - OOLrako irisgarritasunari buruz herritarrek jarritako erreklamazioak, O-NOZek emanak.
 - Biztanleriari buruzko 2023ko datuak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera, Nastatek, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Estatistika Sistemaren elementu nagusiak emanak.
 - Haurdunaldiko arriskuagatik lanpostuan ez egoteko batez besteko asteari buruzko datuak, 2018-2023 aldian pertsonak betetzen duen lanpostuaren arabera, Mutua Navarra erakundeak emandakoak, baimen horiek kudeatzeaz arduratzen den Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzaileak.
 - Herritarrek txosten honen 1. eranskinean zerrendatutako 31 osasun etxeetan 2024ko martxo-aren 11tik 15erako asterako egindako deien kopuruari buruzko datuak.
 - O-NOZek 2018-2023 aldian herritarrei egindako gogobetetze inkestak.
 - Nafarroako OOLko laguntza eraikinetarako irisgarritasun fisikoari buruzko txostena, O-NOZek emana.
 - Familia Medikuntzako espezialitateko barneko mediku egoiliarrentzako prestakuntza plazei buruzko informazioa, O-NOZek emana.

III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

2018-2023 aldian herritarrek OOLko ohiko arretan izan duten irisgarritasunari dagokionez O-NOZek egindako kudeaketa fiskalizatu du Kontuen Ganberak. Herritarrek kezka berezia agertu dute horri buruz.

Nafarroan OTIa duen biztanleria 662.386 pertsonara igo zen 2023an, 2018an baino ehuneko lau gehiago.

2018-2023 aldian, aldaketak izan dira biztanleria piramidean: 64 urtetik gorako biztanleria ehuneko 11 hazi da, eta 15 urtetik beherakoena, berriz, ehuneko lau jaitsi.

Aztertutako aldian 1.083,14 milioi bideratu ziren OOLra. 2023an, batez besteko gastua 309 eurokoa izan zen OTIa duen pertsona bakoitzeko, alegia, ehuneko 28ko igoera egon da 2018aren aldean. Gastu osoaren ehuneko 84 langileentzako izan zen.

2023an, ohiko arretako langile baliokideak 1.728 izan ziren, 2018an baino ehuneko 12 gehiago. Langile horien ehuneko 45 erizainak ziren, ehuneko 28 familia medikuntzako fakultatiboak, ehuneko 22 administrazio langileak eta gainerako ehuneko bosta pediatriako fakultatiboak.

Erretiroen aurreikuspenak bereziki kezagarriak dira familia medikuntzako fakultatiboen kasuan —2023an batez besteko adina 52 urtekoa zen—; izan ere, azken bi urteetan, espezialitate horretako barneko mediku egoiliarrentzako prestakuntzan sartu direnen ehuneko eskaintako plazen ehuneko 63 da. Era berean, lan publikoaren eskaintzetan erizaintzako 86 lanpostu onetsitarako deialdia egiteke dago.

2023an, fakultatiboen eta erizainen OOLko ohiko arretako kontsultak 4,93 milioira iritsi ziren, 2018an eta 2022an baino ehuneko hiru eta zortzi gutxiago.

2022. urtearekin alderatuta, behera egin dute aztertutako lanbide kategoria guztietan egindako kontsultek; hala ere, 2018. urtearekin konparatuta, familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboen jarduera ehuneko hamar eta 17 murriztu da, eta gora egin du familia medikuntzako eta pediatriako erizainenak, ehuneko hamar eta zortzi. Izan ere, erizaintzako langileen funtzioek gora egin dute, eta ohiko arretan protagonismo handiagoa hartu dute. Horrez gain, zenbait osasun etxetan paziente kroniko eta patologia anitzekoak eta prozesu akutuak artatzeko profil espezifikoak sortu dira.

Osasun etxeetako eta kontsultategietako lanpostuen antolamendu egitura bat dator araudian eta O-NOZen planteatutako estrategian ezarritako paziente kupo bakoitzari esleitutako OTIa duten pertsonen kopuruarekin, bai familia medikuntzan, bai pediatrian, aztertutako aldi osoan. 2023an, zifra horiek kupo bakoitzeko 1.287 pazientera iritsi ziren familia medikuntzaren kasuan —araudian gehienez 2.000 paziente ezarri ziren—, eta pediatrian, berriz, 882 pazientera —muga gisa 1.500 aurreikusi ziren—.

Egindako lanaren ondoren, ganberak uste du pazienteak eskatutako ohiko arretarako irisgarritasunak okerrera egin duela aztertutako aldian, eta gertaera hori nabarmen baldintzatu dutela honako alderdi hauek:

- Oro har, luzatu egin dira pazienteak eskatutako kontsultetarako denbora estandarrak, eta horrek esan nahi du eguneroko kontsulthen kopuruak behera egin duela.

- Pazientearen arreta eredia aldatu egin da, eta, besteak beste, OOLn ohiko arretako langileek programatutako kontsultak ugari egin dira. Horren ondorioz, pazienteak eskatutako kontsultetarako eguneko hitzorduak ere murriztu egin dira.

- Onetsitako arau aldaketek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako (NFKA) langileen eskubideak areagotu dituzte lanpostuko absentzia mota batzuen kasuan, hala nola opor egunak eta norberaren gauzetarako egunak edo ama biologikoa ez den gurasoaren baimenak, seme edo alaba baten jaiotzagatik, zaintzagatik, adopzioagatik edo harreragatik.

Hori dela eta, aldi horretan lanpostuko absentziak nabarmen igo dira 2018. urtearekin alderatuta. Zehazki, lanpostuko absentzia indizea ehuneko 18tik 21era igaro da.

- Araudiaren arabera, O-NOZek lanpostuko absentzia horiek betetzeko erabili behar duen lehen aukera langileak aldi baterako kontratatzea da. Ikusten da ez dagoela kontratatu daitekeen

fakultatiborik familia medikuntzan zein pediatrian, eta horrek esan nahi du kasu horietan gehien-gehienetan aparteko jarduerara jo behar dela. Hori kontratazioa baino nabarmen garestiagoa da.

- Nahiz eta O-NOZek aldi horretan ahalegin ekonomiko esanguratsua egin duen aldi baterako langileen kontratazioen (61,36 milioi) eta aparteko jardueren (19,27 milioi) bidez lanpostuko absentiak betetzeko, ez ditu absentzia guztiak bete.

2023an, absenzien estaldura maila ehuneko 67koa izan zen, eta 2018an, berriz, ehuneko 76koa; nabarmentzekoa da familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboen kasuan ehuneko txikia izan zela, ehuneko 57 eta 27, hurrenez hurren.

Absentiak ez betetzeak eragina izan du herritarrei arreta emateko eguneko hitzorduen murrizketan.

- Lanpostuko absentiak kontuan izanda, ohiko arretako benetako langile baliokideak 1.393 pertsona izan ziren 2023an, 2018an baino ehuneko bederatzi gehiago. Azpimarratzekoa da familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboen jaitziera (ehuneko bat eta laukoa) eta erizainen eta administrazio langileen gorakada (ehuneko 19 eta 13koa).

Hori guztia dela eta, aztertutako aldian, pazientearen ohiko arretarako irisgarritasunari buruzko zenbait adierazlek okerrera egin dute; esaterako, egunean emandako hitzorduen ehunekoak, hitzordua lortzeko itxaron egunak, edo arreta jasotzeko behar diren deien kopuruak.

Aurreko guztiaz gain, honako gertakari esanguratsu hauek egiaztatu ditugu:

- Aztertutako aldian, herritarren maiztasuna murriztu egin da ohiko arretan. 2023an, OOLra joan ziren pertsonak 8,91 aldiz joan ziren batez beste, 2018an baino ehuneko sei gutxiago.

- Aztertutako adierazleetan alde nabarmenak daude osasun eskualde oinarrizkoen artean: kupo bakoitzeko OTIak, OTIen eta langile efektibo baliokideen ratioa, pazienteak eskatutako kontsulta bakoitzeko itxaron egunak eta telefono bidezko irisgarritasuna. Horrek esan nahi du, pertsonaren bizilekuaren arabera, irisgarritasun baldintzak desberdinak direla.

Alde horiek, hein handi batean, eskualdeen populazio eta geografia banaketak eta horietako bakoitzean artatutako biztanleriaren adinak eragiten dituzte.

- Aurreko azterketa horren guztiaren ondorioz, irisgarritasun zailtasun esanguratsuenak hiriko osasun eskualde oinarrizkoetako familia medikuntzako fakultatiboekin egindako kontsultetan daude. Eskualde horietako langile horien kupoei zegozkien OTIak, 2023an, lanbide kategoria horrek Nafarroan artatutako OTI guztien ehuneko 57 ziren.

- Adinak nabarmen baldintzatzen du pertsonen maiztasuna; pediatrian, zenbat eta adin txikiagoa, orduan eta maiztasun handiagoa, eta familia medikuntzan, berriz, zenbat eta adin handiagoa, orduan eta maiztasun handiagoa.

- O-NOZek egindako inkestei erreparatuta, OOLrako irisgarritasunari buruz herritarrek duten pertzepzioa 2018an 7,79 izatetik 2023an 7,13 izatera igaro da.

- O-NOZeren txosten baten arabera, OOLko laguntza eraikinetarako irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egiten ari badira ere, osasun barruti guztiek dituzte konpondu beharko lirakekeen urritasunak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Ekintzak duela urte batzuetatik daude aurreikusita, baina COVID-19aren pandemiak atzerapena eragin zuen.

Azken batean, eta OOLn herritarrei ematen diegun ohiko arretan kokatzen badugu gure lana, larrialdietan egindako jarduera kontuan hartu gabe, ganberak uste du pazienteak eskatzen duen OOLko ohiko arretaren irisgarritasunak okerrera egin duela 2018-2023 aldian, hainbat baldintza-tzaileraren ondorioz. Biztanleriaren bilakaera eta zahartzea ikusita, arreta premia handiagoekin, eta datozen urteetan egon litekeen langile falta ikusita, batez ere fakultatiboek dagokienez, dauden baliabideen kudeaketa hobetzera bideratutako jarduketak diseinatu beharko lirakeke, eta langileen etorkizuneko hornidura ahalik eta ondoen planifikatu.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Familia medikuntzako espezialitateko prestakuntzan pertsonak sar daitezen sustatzea eta, ondoren, O-NOZen kontratatzea (3.1 epigrafea)*

- *Familia medikuntzako fakultatiboak erakartzeko neurriak ezartzea (3.1 epigrafea)*

- *Lan publikoaren eskaintzetan betetzeko dauden lanpostu onetsien deialdia egitea (3.1 epigrafea)*
- *Nafarroako Unibertsitate Publikoko Medikuntza graduko plazak areagotzea komeni den aztertzea, profesionalen prestasuna "epe luzera" handitzeko, horretarako behar diren azpiegiturak egokituz (3.1 epigrafea)*
- *Langileen arloan onetsitako arau aldaketen edo hartutako akordioen eragina aztertzea, baliabideen kudeaketa planifikatzeko, irisgarritasuna bermatze aldera (3.1.2 epigrafea)*
- *Sindikatu ordezkarietekin lortu nahi diren akordioetako puntuen eragina aztertzea, herritarrek OOLrako duten irisgarritasunari dagokionez (1.2 epigrafea)*
- *OOLko telefonia finkoaren bilakaerarako programa ezartzen amaitzea (3.4 epigrafea)*
- *Aparteko jarduera egiten duten pertsonen egindako moduluen zatiaren arabera ordaintzea (3.2 epigrafea)*
- *Lanpostuko absentziak aparteko jardueraren bidez betetzea, araudian aurreikusitako kasuetan bakarrik (3.2 epigrafea)*
- *Araudian aparteko jarduera duten lanpostuko absentzien salbuespenetzko egoera guztiak betetzeko aukera jasotzea, langilerik kontratatu ezin izan den kasuetan (3.2 epigrafea)*
- *Lanpostuan gertatzen diren absentzia guztiak erregistratzea, eta ordezkapenaren arrazoia behar bezala identifikatzea (3.2 epigrafea)*
- *Laguntza eraikinetarako irisgarritasuna hobetzeko behar diren baliabide ekonomikoak erabiltzea, araudian ezarritako baldintzak betetze aldera (3.5 epigrafea)*
- *Irisgarritasun fisikoa hobetzeko gastua aurrekontuko partida batean erregistratzea, haren baterako jarraipena egin ahal izateko (3.5 epigrafea)*

IV. OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAREN ERANTZUKIZUNA

O-NOZ arduratzen da OOL kudeatzeaz. Arreta integrala, irisgarria, jarraitua, koordinatua eta ekitatiboa ematen du, eta, gainera, bermatu behar du egindako kudeaketa jarduerak eta eragiketak bat datozela aplikatzekoak diren arauekin.

Era berean, O-NOZek behar diren mekanismoak ezarri behar ditu proposatutako helburuak eraginkorrak izan daitezen eta helburu horiek lortzeko baliabide publikoak efizientziaz eta ekonomiaz erabil daitezen, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezarrita.

V. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarritutako ondorio batzuk adieraztea, herritarrek OOLrako duten irisgarritasunari dagokionez.

Horretarako, fiskalizazio hori egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek erabakitako fiskalizazio printzipio orokorren arabera, ISSAI-ESen ezarritakoak, eta batez ere fiskalizazio operati- boei buruzko ISSAI-ES 300 delakoa aplikatu dugu, bai eta horien garapenari buruzko ISSAI-ES 3000 eta 3100 ere. Printzipio eta jarraibide horiek behartzen gaituzte etika baldintzak betetzera eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa halako moldez egitera non moduzko ziurtasun bat lortuko dugun, baliabide publikoen kudeatzea muntazko alderdi guztietan arau indardunen arabera izateaz.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, iritsitako konklusioei oinarri emanen di- eten auditoretza ebidentziak lortzekoak.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jaso- tzen du lortutako konklusioei funtsa emateko.

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Or- duña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2024ko ekainaren 26an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZA OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAN


1.1 ALDERDI OROKORRAK.

OOL da herritarrek osasun sistemarekin duten lehen harreman maila, gizabanakoari, komunitateari eta inguruneari zuzendutako sustapen, prebentzio, sendaketa, errehabilitazio eta gizarteratze jardueren bidez. Arreta horrek integrala, irigarria, jarraitua eta koordinatua izan behar du.

OOLn sartzen dira bai pazienteak behar duen ohiko arreta, bai ospitaletik kanpo ematen ahal den larrialdiko arreta.

Biztanleen bilakaera 2018-2023

Nafarroan, 2023ko abenduaren 31n, 678.103 biztanle zeuden, hau da, 2018ko urtarrilaren 1etik ehuneko bost gehiago. Honako grafiko honek data horietako biztanleriaren bilakaera erakusten du, adin taldeen arabera:



Iturria: geuk egina, NASTATen datuetan oinarrituta

Grafiko honek biztanleriaren zahartzea erakusten du; 64 urtetik gorako biztanleria ehuneko 11,3 hazi da, eta 14 urtetik beherakoa, berriz, ehuneko 4,48 jaitsi da.

Osasun txartel indibiduala duten biztanleen bilakaera

2018-2023 aldian osasun txartel indibiduala (OTI, aurrerantzean) zuten pertsonen kopurua honako hau izan zen:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
OTIa duten pertsonak, guztira*	637.683	646.698	648.783	653.395	657.492	662.386

*Biztanleria osoa baino txikiagoa, biztanleriaren zati baten osasun arreta beste erakunde batzuek ematen dutelako.

2023an 662.386 pertsonak zuten OTIa, 2018an baino ehuneko lau gehiago.

Oinarrizko osasun laguntzako antolamendu egitura

Nafarroa Iruñea, Tuteran eta Lizarrako osasun barrutietan banatzen da; 2023an 662.386 pertsonak zuten OTIa. Txosten honekin batera doan 2. eranskinak barruti bakoitzaren organigrama jasotzen du.

Barruti horiek 58 osasun eskualde oinarrizkotan banatzen dira: 43 Iruñean, zazpi Tuteran eta zortzi Lizarran.

Kokapen geografikoaren eta artatzen duten biztanleriaren arabera, OEOak honako mota¹ hauetan sailkatzen dira:

Eskualde oinarrizko mota	Eskualde oinarrizko kopurua
Hirikoak	23
Landa eskualde handiak	13
Landa eskualde ertainak	11
Landa eskualde txikiak	8
Eskualde bereziak	3
Guztira	58

Nafarroako OOLren egiturak arautzen dituen maiatzaren 30eko 14/1986 Foru Dekretuaren arabera, OEO bakoitzean OOLko talde bat dago, batez ere langile sanitarioek eta ez-sanitarioek, gizarte langileek edo laguntzaileek eta administrazio langileek osatua. 2023tik psikologia eta fisioterapiako kolektiboaren lanbide kategoriak gehitu ziren.

OEO guztiek osasun etxe bana dute, Zizur-Etxabakoitz eta Barañain eskualdeek izan ezik; hiru eta bi osasun etxe dituzte, hurrenez hurren. Beraz, 61 osasun etxe daude guztira.

Osasun etxe horietan, dagokien biztanlegunearen laguntza jarduera burutzen da, eta OOLko taldearen jarduera komun euskarri fisiko eta funtzionala dira, hala nola dagokion eskualde oinarrizkoaren zuzendaritza, programazioa, koordinazioa edo kudeaketa.

Honako lokal hauek dituzte, gutxienez:

- Harrerarako, onartzeko, artxibatze eta administratzeko gela.
- Itxarongela.
- Kontsulta medikoak eta erizaintzakoak egiteko lokalak.
- Sendaketa eta larrialdi gela.
- Erabilera anitzeko kontsulta lokala.
- Bilera gela.
- Liburutegia.
- Osasun eta gizarte jardueretarako lokalak.
- Komunak eta zerbitzu orokorrak.
- Albaitariaren bulego/artxiborako lokala.

Landa eremuetako OEOetan eta berezitat jotzen direnetan, 228 kontsultategi daude. Kontsultategi horiek eguneko arretarako lokalak eta/edo asteko egun jakin batzuetan laguntzeko lokal osagarriak izan daitezke. Udalak du horiek eraikitze eta mantentzeko eskumena, baina udalerriek dirulaguntzak jasotzen dituzte horiek eraikitze, eraberritze eta mantentzeko.


Kontsultategietan, herritarrek eskatutako laguntza jarduera egiten da, baita prebentzio eta laguntza jarduerak ere. Tokiko kontsultategiek, gutxienez, mediku eta erizaintza kontsultarako gune

¹ 3. eranskinean jaso da OEOen zerrenda, bakoitzari dagokion kategoriaren arabera antolatuta..

indibidualizatuak, itxarongela eta komunak dituzte, behar bezala hornituak. Kontsultategi osagarri-etan mediku eta erizaintza kontsultarako lokal bakarra izan daiteke.

500 biztanletik gorako eta osasun etxerik ez duten landa inguruneko biztanleguneez tokiko kontsultategiak dituzte, eta 300 biztanletik gorako eta osasun etxerik ez dutenek, tokiko kontsultategiak edo kontsultategi osagarriak dituzte, eskariaren eta irisgarritasunaren arabera. Tarte horietan sar-tzen ez diren biztanleguneez kontsultategiak edukitzen ahalko dituzte, betiere irisgarritasun, klima-tologia eta eskari baldintzek edo beste faktore batzuek hala gomendatzen badute.

Mapa honek OEOak jasotzen ditu, baita horien osasun etxeak eta kontsultategiak² ere:



Iturria: geuk egina, IDENaren (Nafarroako Datu Espazialen Azpiegitura) datuetan oinarrituta

Ikus daitekeenez, Iruñean eta Iruñerrian osasun etxe ugari daude, biztanleria dela eta. Zehazki, 24 OEO daude, zeinetan 2023an 374.482 pertsonak baitzuten OTIa. Kopuru hori Nafarroako guz-tizkoaren ehuneko 57 da, eta 26 osasun etxetan eta 27 kontsultategitan ematen zaie arreta.

Oinarrizko osasun laguntzako aurrekontu gastua

2018-2023 aldian, guztira, 1.083,14 milioiko gastua izan zuen OOLk, xehetasun hauen arabera:

Gastu kapitulua	2018	2019	2020	2021	2022	2023
1. Langileak	126.431.880	133.676.562	149.817.846	163.149.319	163.413.248	173.044.509
2. Ondasunak eta zerbitzuak	16.300.942	17.917.302	21.584.495	22.275.130	22.166.235	23.502.203
4. Ohiko transf.*	760.212	775.493	935.517	1.163.362	991.785	1.006.616
6. Inbertsioak	8.023.788	4.050.849	5.234.886	7.171.820	6.863.133	6.614.172
7. Kapital transf.*	2.150.366	864.275	933.364	958.926	725.080	632.724
Guztira	153667188	157.284.480	178.506.108	194.718.557	194.159.482	204.800.224


*Udalei egindako transferentziak, kontsultategien funtzionamendurako eta horietan inbertsioak egiteko

² Itzaldura zuria duten eremuak Aralar eta Bardeetako eremuak dira, zeinetan ez den inor bizi.

Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- 2023an, gastua 204,80 milioi eurokoa izan zen, alegia, 2018an eta 2022an baino ehuneko 33 eta bost gehiago gastatu zen, hurrenez hurren.
- Gastu osoaren ehuneko 84 langileentzako izan zen, eta ehuneko 11 ondasun eta zerbitzuetarako, grafiko honetan ikus daitekeen bezala:

Oinarrizko osasun laguntzako gastuaren banaketa (2018-2023)



Iturria: geuk egina, SAP-GE21eko datuetan oinarrituta

Aztertutako urte bakoitzeko gastuaren portzentajezko banaketa aurreko grafikoan agertzen denaren antzekoa da.

- Kapitulu bakoitzeko gastuaren bilakaera nabarmen aldatu da: gora egin du ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (ehuneko 44), langileetan (ehuneko 37) eta ohiko transferentzietan (ehuneko 32); behera, berriz, inbertsioetan (ehuneko 18) eta kapital transferentzietan (ehuneko 71).
- Osasun barruti bakoitzeko gastuaren ehunekoa antzekoa da aztertutako urte guztietan: ehuneko 77 Iruñean, ehuneko 12 Tuteran eta ehuneko 11 Lizarran.
- Taula honek gastuaren bilakaera erakusten du, beste gastu adierazle batzuekin alderatuta:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
NFKAren gastua, guztira	4.179.665	4.396.177	4.586.995	5.064.484	5.600.514	5.781.905
Osasun gastua, NFKAren kategoria funtzionalaren arabera	1.064.265	1.103.369	1.217.596	1.272.627	1.310.790	1.407.489
Arreta espezializatuko Espezializatua	668.261	695.575	779.842	798.922	822.899	893.691
OOLko gastua	153.667	157.284	178.506	194.719	194.159	204.800

NFKAren guztizko gastua ehuneko 38 handitu zen aldi horretan, osasunaren kategoria funtzionalean ehuneko 32, arreta espezializatuaren kategorian ehuneko 34 eta OOLren kategorian ehuneko 33.

OOLko gastua Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak osasunera bideratutako guztizko gastuaren ehuneko 15 izan zen aldi horretan.

- OOLko eta arreta espezializatuko gastuaren bilakaera, OTla duen pertsona bakoitzeko, honako hau da:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
OOLko gastua, OTla duen pertsonako	241	243	275	298	295	309
Arreta espezializatuko gastua, OTla duen pertsona bakoitzeko	1.047	1.074	1.201	1.221	1.250	1.347

OOLko eta arreta espezializatuko gastuaren artean nabarmeneko aldea dago, ematen dituzten zerbitzu hain desberdinengatik logikoa den bezala. Dena den, aldi horretan izan zuten hazkundeen ehunekoa antzekoa da: ehuneko 28ra iristen da OOLren kasuan eta ehuneko 29ra arreta espezializatuaren kasuan.

Kontsulten jarduera oinarrizko osasun laguntzan


Hona hemen OOLn egindako kontsulten jardueraren bilakaera, lanbide kategoriaren arabera, 2018-2023 aldian:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023-2018	Ald. 2023/2022
Fakultatiboa fam. mek.	2.698.727	2.712.948	2.732.431	2.681.839	2.560.703	2.440.544	-10	-5
Fakultatiboa pediatria	513.613	499.178	445.803	457.738	467.620	423.874	-17	-9
Erizaintza fam. med.	1.615.861	1.733.897	2.015.063	2.169.586	1.972.345	1.775.392	10	-10
Erizaintza pediatria	274.166	288.009	353.371	431.519	352.291	295.941	8	-16
Larrialdiak	661.128	704.515	833.735	969.599	752.960	753.160	14	0,03
Gizarte lana	93.516	104.614	122.514	146.338	131.053	130.466	40	-0,45
Guztizko orokorra	5.857.011	6.043.161	6.502.917	6.856.619	6.236.972	5.819.377	-1	-7

Aurreko datuen analisitik abiatuta honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Kontsultak 5,82 milioi izan ziren 2023an, 2018an eta 2022an baino ehuneko bat eta zazpi gutxiago, hurrenez hurren.
- Hona hemen egindako kontsulten ehunekoa, lanbide kategoriaren arabera:

OOLko espezialitatearen arabera emandako hitzorduak



Iturria: geuk egina, "Bardea-Zabalpena" izenekoaren datuetan oinarrituta.

Ehuneko horiek antzekoak dira urte bakoitzeko banaketa aztertuz gero.

- Zenbait kategoriatan 2020an eta 2021ean izandako jarduera igoerak COVID-19aren pandemiak baldintzatu zituen.
- Jardueraren portaera, lanbide kategoriaren arabera, ezberdina da 2023an 2018arekin alde-ratuta, kontsulta egiten duen langile motaren arabera. Hala, fakultatiboek egindako kontsultak, familia medikuntzan zein pediatrian, nabarmen jaitsi dira, ehuneko hamar eta 17, hurrenez hurren.

Erizaintzako kontsultek gora egin dute, bai familia medikuntzaren kasuan (ehuneko hamar), bai pediatriaren kasuan (ehuneko zortzi).

Murrizketa eta igoera horiek, besteak beste, erizaintzako langileen funtzioen gehikuntzaren ondorio dira —lehen fakultatiboek betetzen zituzten—. Horretarako, erizaintzako profil gehigarriak sortu dira, besteak beste, paziente kronikoei eta prozesu akutuei arreta emateko.

- Oro har, 2023an 2022arekin alderatuta egindako kontsultek behera egin dute kasu guztietan, ehuneko desberdinetan, kontsulta horiek egiten dituen lanbide kategoriaren arabera; nabarmen-tzekoak dira pediatriako eta familia medikuntzako erizaintzako langileek egindakoak, ehuneko 16 eta hamar jaitsi direlako, hurrenez hurren.

Oinarrizko osasun laguntzako langileak

OOLko plantilla organikoko lanpostuak³ eta haien egoera aztertutako aldiko urte bakoitzeko abenduaren 31n, honako hau zen:

Lanpostuak	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hutsik ez	1.470	1.404	1.365	1.342	1.478	1.606
Lanpostu hutsak	476	583	622	707	750	624
Guztira	1946	1.987	1.987	2.049	2.228	2.230

2023an, lanpostuen ehuneko 28 hutsik zeuden; 2018an, berriz, ehuneko 24, eta 2022an, ehuneko 34.

Lanpostu horiek lanbide kategoria hauetakoak dira:

Lanbide kategoria	Lanpostuak	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Fam. med. fak.	Hutsik ez	467	475	457	439	516	592
	Lanpostu hutsak	164	164	182	220	184	111
Pediatriako fak.	Hutsik ez	77	77	74	68	95	95
	Lanpostu hutsak	33	33	36	42	17	18
Erizaintzako lang.	Hutsik ez	568	534	519	499	544	602
	Lanpostu hutsak	151	199	214	266	302	245
Beste ez-sanitario batzuk	Hutsik ez	338	297	296	317	302	299
	Lanpostu hutsak	108	168	169	156	223	224
Beste sanitario batzuk	Hutsik ez	20	21	19	19	21	18
	Lanpostu hutsak	20	19	21	23	24	26
Guztira		1946	1.987	1.987	2.049	2.228	2.230

Egoera desberdina da aztertutako lanbide kategoriaren arabera.

2023an, erizaintzako lanpostu hutsak plazen ehuneko 29 ziren; fakultatiboek, berriz, ehuneko 16 (familia medikuntzan nahiz pediatrian), edo beste langile sanitario batzuenak, ehuneko 59 (odontologia, fisioterapia eta abar). Beste langile ez-sanitario batzuen kasuan (administrazio langileak, gizarte lanean dihardutenak, zeladoreak edo kudeaketa lanetan dihardutenak), lanpostu hutsen ehunekoa 43ra iristen zen.

³ Plaza kopuru horretan ez dira kontuan hartu egiturazkotzat joak izanik teoriarik koitunturako beharrei erantzuten dietenak. Oro har, baina, behar iraunkorrei erantzuten ari zaizkie.

Urte bakoitzeko abenduaren 31n hutsik zeuden plazen egoera honako hau zen:

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	24	29	31	35	34	28
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	431	511	542	610	667	547
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	91	88	87	86	89	88
Bete gabeko lanpostu hutsak	45	72	80	97	83	77
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	9	12	13	14	11	12

2023an, lanpostu hutsen ehunekoa, lanpostu guztien artean, ehuneko 28ra iritsi zen. Lanpostu horietatik ehuneko 88 aldi baterako beteta zeuden.

Taula honetan, 2018-2023 aldiko langile baliokideak⁴ jaso dira, lanbide kategoriaren arabera:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fakultatiboa	702	700	696	690	690	693
Pediatriako fakultatiboa	91	91	88	83	89	88
Erizaintzako langileak	863	888	960	1.057	1.021	1.025
Beste langile sanitario batzuk	31	30	70	122	71	72
Beste langile ez-sanitario batzuk	513	523	591	639	639	607
Guztira	2199	2.233	2.407	2.668	2.511	2.485

2023ko langileei dagokienez, honako hau nabarmenduko dugu:

- OOLn zerbitzuak eman zituzten langile baliokideak 2.485 izan ziren, 2018an baino ehuneko 13 gehiago, baina 2022an baino ehuneko bat gutxiago.
- Langile ez-sanitarioen ehuneko 51 administrazio langileak ziren, ehuneko 24 gizarte langileak, ehuneko zortzi zeladoreak eta gainerako ehuneko 17a bestelako zereginetan aritzen ziren langileak (kudeaketa, zerbitzu orokorrak, etab.).

1.2 HERRITARREN ZITAZIOAREN KUDEAKETA OINARRIZKO OSASUN LAGUNTZAN

Agendak erabiltzen dira OOLko zitazioa eta jarduera kudeatzeko. Hainbat ekintzatan banatzen dira, jarraian zehaztuko dugun bezala.

Agenda bateko ekintza motak

Langileen eguneko lanaldia honela banatzen da agendetan:

- Laguntza denbora: pazientearekin harremanetan egon behar den lan denbora da, aurrez aurre edo telefono bidez, eta fakultatiboan eta erizainen agendetan 300 minutu dira egunero.

Denbora hori, lanbide kategoria horietarako, hainbat ekintza motatan banatzen da:

- a) Eguneko hitzordua: aurrez aurreko kontsulta, egunean bertan eman behar diren arretetarako.

Eguneko hitzordua egun berean baino ezin da jarri telefonoz edo aurrez aurre, salbu eta hitzordua aurreko egunean hartzen bada Internet⁵ bidez, osasun karpetatik.

- b) Medikuen kontsulta arrunta edo erizaintzako kontsulta arrunta: aurrez aurreko hitzordua dira, egunean bertan ematea nahitaezkoa ez den arretetarako. Pazientearen eskariz jartzen ahal dira hitzordua, edo fakultatiboek edo erizainek berek eskatuta.

⁴ Zifra horietan sartuta daude Tuterako Larrialdi Zerbitzu Arrunteko langileak, zeinak ez diren kontuan hartu O-NOZen oroitidazkian. Ez dira kontuan hartzen prestakuntzan dauden langileak.

⁵ Osasun etxe bakoitzak erabakitzen du Internet bidez erabilgarri egon diren eguneko hitzorduen kopurua; betiere, osasun etxe bakoitzak eguneko hitzordua gisa kategorizatutako tarteen kopurua baino txikiagoa izan behar du.

c) Kronikoen kontsulta hitzartua: aurrez aurreko eta langileek programatutako kontsulta, paziente kronikoen jarraipena egiteko.

d) Etxez etxeko kontsulta: aurrez aurreko kontsulta pazientearen etxean egin behar diren arretetarako. Pazienteak eskatutako hitzorduak edo langileek hitzartutakoak izan daitezke.

e) Kontsulta hezigarria: aurrez aurreko kontsulta hitzartua, autozainketak nola egin irakasteko. Erizaintzako agendetan bakarrik erabiltzen da.

f) Ekintza komuna: erizaintzako agendetan osasun etxeko zeregin partekatuak egiteko denbora erreserbatzea da (odol ateratzeak, espiometriak, etab.).

g) Osasun azterketak: aurrez aurreko hitzordu programatua. Fakultatiboek eta/edo erizainek parte hartzen ahal dute.

h) Jaioberriaren etxeko bisita: aurrez aurreko kontsulta programatua jaioberriaren etxean. Erizaintzako agendetan jartzen da hitzordua.

i) Aurrez aurrekoa ez den kontsulta: aurrez aurrekoa ez den hitzordua, hots, pazientearekin telefonoz jartzen da harremanetan, hala eskatuta edo hitzartuta, horrela konpontzen ahal diren arretetarako.

j) "Koltxoia": eskariaren aldakortasuna dela eta gordetako denbora: atzerapenak, kontsulta baten denbora luzatzea, eguneko eskarirako hitzorduak ematea edo taldeko profesionalen arteko zitazioa. Beste ekintza bat bihurtzen da, zitazio beharren arabera.

2018-2023 aldiari, Iruñeko barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak agenda proposamen bat bidali zien O-NOZeko osasun etxe guztiei, ekintza horietako batzuen iraupen estandarrekin, honako xehetasun hauen arabera:

Ekintza	Iraupen estandarra, minututan, aztertutako aldiari	
	2018-2019	2020-2023
Eguneko hitzordua	10	12
Medikuaren edo erizaintzako kontsulta arrunta	10	12
Kronikoen kontsulta hitzartua	20	20
Etxez etxeko kontsulta	30	30
Osasun azterketak	20	20
Aurrez aurrekoa ez den kontsulta (telefonoz)	5	8
Koltxoia	10	8

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak bidalitako proposamenak kontuan hartuta, familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboen eta erizainen eguneroko agendek hutsune hauek izango lituzkete, batez beste, egun batean zitatzeko:

Langile mota	2018 - 2020 otsaila	2020 otsaila - 2021 urria	2021 urria - 2023 otsaila	2023 otsaila - 2023 abendua
Medikuak fakultatiboa	35 (30 koltxorik gabe)	32 (28 koltxorik gabe)	26 (23 koltxorik gabe)	27 (24 koltxorik gabe)
Medikuak fakultatiboa			24 (22 koltxorik gabe)	24 (22 koltxorik gabe)
Familia medikun- tzako erizaina	Ez dago daturik	Ez dago daturik	21 (19 koltxorik gabe)	21 (19 koltxorik gabe)
Pediatriako erizaina			19 (17 koltxorik gabe)	19 (17 koltxorik gabe)

Ekintza kopuru hori oso handia da, printzipioz agendan egon daitezkeen hutsuneen gehieneko kopurua baita, non eta estandar horretatik gorako hitzordu kopurua eginarazten ez den.

Horren ildotik, aipatu nahi dugu 2023ko otsailean, O-NOZek akordio bat lortu zuela Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin. Bertan adostu zenez, familia medikuntzako fakultatibo batek gehienez

32 paziente artatuko ditu, kontsulta bakoitzeko 12 minuturekin, eta pediatriaren kasuan, gehienez 24 paziente eguneko, iraupen bereko kontsultekin. Ezingo dira horiek baino kontsulta gehiago eginarazi, salbu eta profesionalak borondatez onartzen badu. Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak bidalitako agenda proposamenarekin betetzen da aipatutako akordioa.

- Laguntzaz kanpoko denbora: pazientearekin harremanetan jarri beharrik ez dagoen lanetarako gordetako denbora. Kasu horretan, ekintza mota hauek daude:

a) Zitatu ezin diren ekintzak: taldearen bileretarako, irakaskuntzarako eta atsedenerako gordetako denbora.

b) Kupoaren kudeaketa: pazienteen kupoaren kudeaketa eta administrazio lanetarako (historiak, agindu klinikoak, botika preskripzioak, etab.) gordetako denbora. Ekintza horiek ere ezin dira zitatu.

c) Pazienterik gabeko kontsulta: paziente jakin batekin lotutako kudeaketa lanak zitatzen ahal dira, aurrez aurre edo telefono bidez harremanetan jartzeko beharrik ez dagoenean.

Bidalitako agenda proposamen horiek argibide orientagarriak dira, eta gero osasun etxe bakoitzaren errealitatera egokitzen ahal dira, nolabaiteko autonomia baitute agendak beste modu batera antolatzeko eta agenden guztizko denbora ekintza gehiago edo gutxiagotan banatzeko.

Zitazio prozedura

ATENEA aplikazioa erabiltzen da zitazioa kudeatzeko, eta horren bidez, administrazio langileek, fakultatiboek edo erizainek laguntza denborarako hitzorduetarako hutsuneak betetzen ahal dituzte. Hitzordu bat egiteko prozedura desberdina da honen arabera:

- Pazienteak eskatzea hitzorduak: pertsona batek aurrez aurre, telefonoz edo online eskatzen ahal du hitzordua. Lehenengo bi kasuetan, administrazio langileek, ezarritako zitazio irizpide batzuei jarraituz, pertsona horrek zer arreta mota behar duen eta arreta zer lanbide kategoriak eman behar dion erabakitzen dute, eta lehen hutsunea eskaintzen diote. Txosten honekin batera doan 4. eranskinak prozedura horren fluxu diagrama jasotzen du.

Pazientearen eskariz honako ekintza hauetarako hitzorduak jartzen ahal dira: eguneko hitzordua, medikuaren eta erizaintzako kontsulta arrunta, etxez etxeko kontsulta eta aurrez aurrekoa ez den kontsulta.

Horren harira, herritarrei arreta egun berean emateko hutsuneak gordetzeko neurri bat ezarri zen 2023tik aurrera. Osasun etxe bakoitzaren agendak diseinatzean, zentro bakoitzak eguneko hitzorduetara bideratzea erabaki duen hutsune kopurua automatikoki blokeatzen du ATENEAK, eta, beraz, egunean bakarrik ematen ahal dira. Gainerako ekintzei dagokienez, osasun etxeak ekintza kopuru jakin bat blokeatzea erabakitzen ahal du.

Agenda egunero ekintza motaren arabera banatzeari eta beste ekintza mota batzuk blokeatzeari buruzko erabaki horiek (baita ATENEAK eguneko hitzorduen kasuan egiten duen blokeo automatikoa ere) OEO motaren eta artatutako biztanleriaren profilararen arabera egiten dira; hala bada, lanbide kategoria bereko agenden artean ere aldeak egon daitezke OEO jakin batean.

- OOLko langileek programatzea hitzorduak: kasu horretan, langileek hutsuneak betetzen dituzte, pazienteak egokitzen jotzen duen epean behar duen arretaren arabera. Kontsulta mota horiek erabiltzen dira, adibidez, pazienteei egindako proben emaitzak emateko, pazientearen egoera berrikusteko aurrez aurrekoak ez diren kontsultak emateko, etab.

Ekintza hauek programatzen ahal dira: medikuaren eta erizaintzako kontsulta arrunta, etxez etxeko kontsulta, aurrez aurrekoa ez den kontsulta, kronikoen kontsulta hitzartua, osasun azterketak, jaioberriaren etxeko bisita eta ekintza komunak.

2. GEHIGARRIA. METODOLOGIA ETA ARAU ESPARRUA

2.1 METODOLOGIA

Txosten hau egiteko, Kontuen Ganberak aipatutako ISSAI-ES 300ean ezarritako metodologia erabili du, bai eta auditoretza operatiboari buruzko GPF-OCEX 3000, 3910 eta 3920 Kanpo-kontrolako Organoen Fiskalizazio Gida Praktikoan jarraibideak ere. Jarraibide horiek aplikatzeko, lanaren helburuak galdera gisa planteatu eta horietako bakoitzari azpigelburuak lotu zaizkie, bakoitzari ondorio bat ateratzeko.

Azpigelburu horiei erantzuteko, txosten honen II. epigrafean azaldutako irizpideak lotu zitzaizkien horiei, eskura dugun informazioa kontuan hartuta egokienak direlakoan.

2.2 APLIKATZEKO DEN OINARRIZKO ARAU ESPARRUA

Honako arau hauek osatzen dute OOLrako irisgarritasunari aplikatzekoa zaion oinarrizko arau esparrua:

Estatuko arauak

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurriena.

Foru araudia

- 22/1985 Foru Legea, azaroaren 13koa, Nafarroako osasun eskualdeei buruzkoa.
- 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, Nafarroako Osasunari buruzkoa.
- 11/1192 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa.
- 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.
- 12/2018 Foru Legea, ekainaren 14koa, Irisgarritasun Unibertsalari buruzkoa.
- 6/2019 Foru Legea, otsailaren 7koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- 11/2023 Foru Legea, martxoaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa.
- 12/2023 Foru Legea, martxoaren 29koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren testua aldatzen duena.
- 148/1986 Foru Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Nafarroako oinarrizko osasun laguntzaren egiturak arautzen dituena.
- 244/1994 Foru Dekretua, azaroaren 28koa, Lehen Osasun Laguntzako famili medikua eta mediku pediatra libreki aukeratzeko eskubidea arautzen duena.
- 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.
- 609/2014 Ebazpena, ekainaren 2koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bitartez baimentzen den Nafarroako oinarrizko osasun laguntzako produktibitate aldakorren osagarriari dagokion gastua.

- 618/2019 Ebazpena, ekainaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez eguneratzen baitira oinarrizko osasun laguntzan eta arreta espezializatuan produktibitate bereziko osagarriengatik ordaindu beharreko zenbatekoak.

- 1635/2019 Ebazpena, abenduaren 31koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira oinarrizko osasun laguntzaren eremuan aparteko produktibitate bereziko osagarriaren modulua eta baldintzak ezartzen dituen (2020ko uztailaren 30ean aldatu zen).

3. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO OHAR ETA AURKIKUNTZAK

Gehigarri honetan, gure fiskalizazioaren azpihelburu bakoitzean lortutako ondorioak garatuko ditugu.

3.1 LEHEN HELBURUA. HERRITARREI ARRETA EMATEKO O-NOZEREN BITARTEKOEN AZTERKETA

3.1.1 O-NOZeren egungo plantilla

Ohiko arretako plantilla organikoko plazen bilakaera

Taula honetan, larrialdikoa ez den ohiko oinarrizko osasun laguntzako langileen plantilla organikoaren bilakaera ageri da, lanbide kategoriaren arabera, hau da, OOLko plantilla osoaren ehuneko 70:

Lanbide kategoria	Lanpostuak	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	Hutsik ez	350	363	354	331	376	402
	Lanpostu hutsak	90	86	95	130	108	83
Pediatriako fak.	Hutsik ez	74	74	72	68	89	89
	Lanpostu hutsak	29	29	31	35	16	17
Erizaintzako lang.	Hutsik ez	427	398	380	361	394	438
	Lanpostu hutsak	112	153	171	211	233	189
Administrazio lang.	Hutsik ez	217	181	172	192	188	174
	Lanpostu hutsak	67	112	123	108	146	161
Guztira		1366	1.396	1.398	1.436	1.550	1.553

Lanpostuak 1.553 izan ziren 2023an, aldi horretan ehuneko 14ko hazkundea izan ondoren. Lanpostu horietatik, ehuneko 28 hutsik zeuden.

Lanbide kategoriaren araberako egoera desberdina da: erizaintzako langileen lanpostuak ehuneko 30ean hutsik daude, familia medikuntzakoak ehuneko 17an, administrazio langileenak ehuneko 48an eta pediatriakoak ehuneko 16an.

Abenduaren 31n hutsik zeuden lanpostuen egoera honakoa zen:

Kontzeptua	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Lanpostu hutsak, guztira	298	380	420	484	503	450
Lanpostu hutsak lanpostu guztien gainean (%)	22	27	30	34	32	29
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	271	338	371	422	447	399
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean (%)	91	89	88	87	89	89
Bete gabeko lanpostu hutsak	27	42	49	62	56	51
Bete gabeko lanpostu hutsak (%)	9	11	12	13	11	11

2018-2023 aldian, lanpostu hutsen ehuneko 11 ez zeuden beteta, eta lanbide kategoria hauenak ziren:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	15	15	17	27	26	24
Pediatriako fak.	6	6	10	11	4	2
Erizaintzako langileak	4	15	16	18	19	16
Administrazio langileak	2	6	6	6	7	9
Bete gabeko plazen ehuneko	27	42	49	62	56	51

Urte guztietan, familia medikuntzako fakultatiboen kategoriak ditu bete gabeko plaza huts gehien; zehazki, 24 izan ziren 2023an (lanpostu guztien ehuneko 47).

Ohiko arretako langile finioen altak eta bajak

Gure irismenean sartzen diren lanbide kategorietako langile finioen aldakuntza garbia honako hau izan zen:

		2018	2019	2020	2021	2022	2023
Medikuak fakultatiboak	Altak	-	4	-	7	38	22
	Bajak	19	11	21	19	32	14
	Aldakuntza garbia	-19	-7	-21	-12	6	8
Pediatriako fakultati- boa	Altak	-	1	-	3	3	1
	Bajak	5	4	5	2	6	4
	Aldakuntza garbia	-5	-3	-5	1	-3	-3
Erizaintzako langileak	Altak	4	-	9	3	18	44
	Bajak	28	28	25	27	26	24
	Aldakuntza garbia	-24	-28	-16	-24	-8	20
Administrazio langileak	Altak	-	-	-	28	-	-
	Bajak	7	4	12	12	11	11
	Aldakuntza garbia	-7	-4	-12	16	-11	-11

Aldi osoan, aldakuntza garbia negatiboa da, 172 pertsona gutxiago baitaude: 80 erizain, familia medikuntzako 45 fakultatibo, 29 administrazio langile eta pediatriako 18 fakultatibo.

2022ko datuekin alderatuta, pediatriako fakultatiboan eta administrazio langileen artean aldakuntza negatiboa izan zen 2023an; ostera, familia medikuntzako fakultatiboan eta erizainen kasuan aldaketa positiboa izan zen.

Horri dagokionez, adierazi behar dugu 2024an aldakuntza garbia ziurrenik positiboa izanen dela lanbide kategoria guztietan, enplegu publikoa egonkortzeko prozesuen ondorioz langile finioak sartuko direlako.

Ohiko arretako langile baliokideak

Aztertutako aldian, ohiko arretako langile baliokideak honako hauek dira:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	490	482	488	471	471	474
Pediatriako fak.	88	87	85	82	88	87
Erizaintzako lang.	636	650	691	730	744	779
Administrazio lang.	328	336	356	371	375	388
Guztira	1542	1.555	1.619	1.654	1.678	1.728

2023an, langile baliokideak 1.728 izan ziren, 2018an eta 2022an baino ehuneko 12 eta hiru gehiago, hurrenez hurren. Langile baliokide horiek OOLn 2023an lan egin zuten guztien ehuneko 79 dira.

Langile horien ehuneko 45 erizainak ziren, ehuneko 28 familia medikuntzako fakultatiboak, ehuneko 22 administrazio langileak eta gainerako ehuneko bosta pediatriako fakultatiboak.

CIAS bakoitzari esleitutako OTIak araudian ezarritako optimoarekin alderatzea

Osasun etxeak identifikazio autonomiko sanitarioko kode (CIAS, aurrerantzean) batekin identifikatutako paziente kupoetan antolatzen dira. Kupo bakoitza oinarritzko unitate asistentzial bati esleitzen zaio. Unitate hori familia medikuntzako edo pediatriako fakultatibo batek eta erizaintzako kolektiboko pertsona batek osatzen dute.

Pazienteak CIASen artean banatzeari dagokionez, Lehen Osasun Laguntzako famili medikua eta mediku pediatria libreki aukeratzeko eskubidea arautzen duen azaroaren 28ko 244/1994 Foru Dekretuaren 6. artikulua xedatzen duenez, laguntza kalitate egokia bermatzeko, familia medikuntzako fakultatiboen kasuan, CIAS bakoitzari atxikitzen ahalko zaion OTI kopurua 1.250 eta 2.000 artekoa izanen da, eta pediatriako fakultatiboen kasuan, 1.250 eta 1.500⁶ artekoa da.

Bestalde, O-NOZek 2019-2022 aldirako onetsitako Nafarroako Oinarritzko Osasun Laguntzako eta Arreta Komunitarioko Estrategia anbiziotsuagoa izan zen, eta baliabideak⁷ familia medikuntzan CIAS bakoitzari esleitutako 1.500 OTI eta pediatrian 1.000 OTI gaitzea saihesteko moduan planifikatzea planteatzen zuen.

Osasun etxeetan dauden CIASak kontuan izanda, OTI/CIAS ratioak lortu ditugu, eta emaitzak hauek dira, oinarritzko eskualde moten arabera:

CIAS bakoitzean OTIa duten pazienteak, familia medikuntzan						
	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hirikoak	1.352	1.435	1.446	1.432	1.511	1.507
Landa eskualde handiak	1.469	1.454	1.418	1.396	1.395	1.396
Landa eskualde ertainak	1.117	1.127	1.137	1.148	1.156	1.175
Landa eskualde txikiak	950	966	976	974	982	971
Eskualde bereziak	332	334	338	347	349	393
Batez bestekoa, familia medikuntzan	1.226	1.259	1.259	1.251	1.285	1.287

CIAS bakoitzean OTIa duten pazienteak, pediatrian						
	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Landa eskualde handiak	1.087	1.017	1.014	1.006	1.000	982
Landa eskualde ertainak	937	940	1.045	1.021	1.005	977
Landa eskualde txikiak	988	991	989	984	963	930
Hirikoak	987	952	889	876	882	862
Eskualde bereziak	144	148	142	142	135	132
Batez bestekoa, pediatrian	956	928	922	910	905	882

Aurreko datuetatik honako hau nabarmentzen dugu:

- Oro har, ez dira gaitzen araudian eta O-NOZek diseinatutako estrategian ezarritako ratioak.
- Familia medikuntzaren kasuan, CIAS bakoitzean OTIa duten pazienteak ehuneko bost igo dira, eta pediatrian, berriz, ehuneko zortzi jaitsi dira.
- CIAS bakoitzari esleitutako OTIei dagokienez alde nabarmenak daude osasun etxe moten artean, bai familia medikuntzaren kasuan, bai pediatriaren kasuan, batez ere biztanleria udalerrri jakin batzuetan kontzentratzen delako.

⁶ Pertsona tarte horiek dira irailaren 10eko 1575/1993 Errege Dekretuak, Osasun Institutu Nazionalaren oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuetan medikua askatasunez aukeratzeko arautzen duenak, estatu mailarako ezarritako berberak.

⁷ Baliabide-plangintza horrek halaber hartzen du kontuan osasun etxe bakoitzean artatutako biztanleen adina.

3.1.2 OOLko langileen absentsiak lanpostuan

Absentsien arrazoiak

Langileen absentsiak Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua arautzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan eta Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuan jasota daude.

Txosten honen ondorioetarako, honako absentsia mota hauek bildu ditugu:

- Beti gertatuko diren absentsiak: 27 lanegun oporregatik eta hiru lanegun norberaren gauzetarako baimen ordainduagatik lan egindako urte bakoitzeko, edo proportzionalki dagozkion egunak zerbitzu denbora laburragoa izan bada.

Absentsia horien haritik, martxoaren 29ko 12/2023 Foru Legeak aipatutako legegintzako foru dekretua aldatu, eta opor egun gehigarriak eta norberaren gauzetarako egun gehigarriak txertatu zituen, pertsonaren antzintasunaren arabera. Hona hemen horien taula:

Antzintasun urteak	Egun gehigarriak		Egun gehigarriak, guztira
	Oporregatik	Norberaren gauzetarako	
15-17	1	-	1
18-19	1	2	3
20-23	2	2	4
24	2	3	5
25-26	3	3	6
27-29	3	4	7
30-32	4	5	9
33-35	4	6	10
36-38	4	7	11
39-41	4	8	12
42-44	4	9	13

Araudian aldaketa hori aplikatzeak 52.789 ordu gehiago hartzeko eskubidea ekarri zuen 2023an, honako xehetasun hauen arabera:

Lanbide kategoria	Ordu gehigarriak	Pertsona baliokideak
Familia medikuntzako fakultatiboa	19.008	11
Pediatriako fakultatiboa	2.447	1,4
Erizaintzako langileak	25.704	14
Administrazio langileak	5.630	3
Guztira	52789	30

Oporretako eta norberaren gauzetarako ordu gehigarri horiek 2023an ordeztzeko, lanaldi osoko 30 pertsona kontratatu beharko liriteke: 14 erizain, familia medikuntzako 11 fakultatibo, 3 administrazio langile eta pediatriako 1,4 fakultatibo.

Horri dagokionez, salbuespen gisa, arauaren aldaketa 2023ko martxoaren amaieran onetsi zenez, urte osoan kontratatuta egon ez ziren langileentzat ez ziren kontuan hartu arau aldaketa argitaratu aurreko aldiari zegozkion opor egun eta norberaren gauzetarako egun gehigarriak. Horrek esan nahi du 2024tik aurrera zifra horiek handiagoak izanen liritekeela araua urte oso bati aplikatzean.

- Araudian arrazoi espezifikoen arabera beste absentzia batzuk. Honela banatzen dira:

a) Lizentzia ordainduak: ezkontza edo bikote egonkorra, haurdunaldia, erditzea, seme-alaba goiztiarrak edo ospitalean egon behar dutenak jaiotzea, adopzioa, adopzioarako edo harrerarako zaintza, minbizia edo bestelako gaixotasun larriren bat duen adingabea zaintzea, gaixotasun oso larriren bat duen senitartekoa zaintzea.

Haurdunaldiagatik lizentzia ordainduari dagokionez, 2018-2023 aldian OOLko langileei lizentzia eman zitzaizkien haurdunaldiaren batez besteko astea jaso dugu jarraian, Mutua Navarrak, hau da, Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzaileak emandako informazioaren arabera. Mutualitate horrek aztertzen du noiz eman behar den lizentzia hori, lanpostuaren ezaugarrien eta arriskuaren⁸ arabera:

	Langile fakultatiboak		Erizaintzako langileak	
	Eskabide ko-purua	Lizentzia emateko batez besteko astea	Eskabide ko-purua	Lizentzia emateko batez besteko astea
2018	21	25,8	28	21,6
2019	33	25,2	19	25,3
2020	28	22,1	26	25,6
2021	28	23,8	20	22,2
2022	49	24,7	36	23,5
2023	35	22	41	22,7

b) Ordaindu gabeko lizentziak: norberaren gauzak, gehienez ere hiru hilabete, bi urtean behin.

c) Baimen ordainduak: ama biologikoa ez den gurasoarentzako jaiotza, adopzio edo harreragatik, 12 hilabetetik beherako seme-alaben edoskitzeagatik, jaio aurreko azterketengatik eta erditzea prestatzeko teknikengatik, genero indarkeriagatik, desgaitasuna duten seme-alaben arretagatik, senideen heriotzagatik, senideen gaixotasun edo ospitaleratzeagatik, senideen kirurgia handi anbulatorioagatik, etab.

d) Aldi baterako lanerako ezintasunak edo baimen sindikalengatikiko absenteziak eragindako beste egoera batzuk.

Absentzia horietako batzuei dagokionez, 6/2019 Foru Legeak eta 12/2023 Foru Legeak 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatu zuten, eta honako aldaketa hauek sartu zituzten aztergai den aldira:

Absentzia mota	Arau aldaketaren aurreko iraupena	Arau aldaketak
Minbizia/gaixotasun larria duen adingabea zaintzea	Lanaldiaren ehuneko 75 arte	12/2023 Foru Legetik aurrera, lanaldiaren ehuneko 99,99 arte
Ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena seme-alaba baten jaiotza, adoptatzeko zaintza, harrera edo adopzioarengatik	2018: zortzi aste uztailaren 4ra arte jaiotakoentzat, bederatzi aste uztailaren 5etik aurrera jaiotakoentzat. 2019: 13 aste 2020tik aurrera: 17 aste	

⁸ Erakunde horrek ez ditu administrazio langileak baloratzen, eta eskuragarri dagoen informazioaren arabera lanetik arazo hori tarteko irten diren bi pertsona bakarrak hiru eta lau astez egon dira lanetik kanpo guztira.


Absentzia orduen kuantifikazioa, lanbide kategoriaren arabera

2018-2023 aldiaren aztertutako lanbide kategorietan, lanpostuko absentzia ordu hauek izan ziren:

Langile mota	Absentzia mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Medikuak medikuntzako fakultatiboa	Oporrak/Norberaren gauzetarako egunak	93.203	91.572	88.578	93.216	94.355	106.770
	Gaixotasuna/Istripua	38.092	39.980	63.739	46.119	52.450	47.918
	Amatasuna/Aitatasuna	8.136	10.642	7.751	12.844	17.784	13.879
	Baimenak	7.204	14.964	6.270	6.545	9.001	12.221
Medikuak fakultatiboa	Oporrak/Norberaren gauzetarako egunak	18.289	17.371	16.073	16.717	18.166	19.482
	Gaixotasuna/Istripua	8.095	7.823	12.739	12.194	13.811	13.867
	Amatasuna/Aitatasuna	6.057	8.337	11.831	6.780	8.255	7.432
	Baimenak	2.098	2.880	928	892	1.400	1.841
Langileak langileak	Oporrak/Norberaren gauzetarako egunak	117.838	114.903	118.206	133.819	148.251	162.625
	Gaixotasuna/Istripua	59.791	69.245	94.080	80.487	104.491	94.127
	Amatasuna/Aitatasuna	14.067	20.956	14.908	22.337	20.229	36.418
	Baimenak	27.241	26.057	9.765	10.616	10.892	12.925
Langileak langileak	Oporrak/Norberaren gauzetarako egunak	61.103	57.906	59.758	64.059	68.351	72.858
	Gaixotasuna/Istripua	25.169	36.686	51.607	41.979	42.131	53.119
	Amatasuna/Aitatasuna	1.863	822	1.307	4.159	3.320	1.647
	Baimenak	14.963	15.611	14.415	15.999	15.196	16.022
Orduak, guztira		503.209	535.755	571.955	568.762	628.083	673.151
Pertsona baliokideak, guztira		281	299	320	318	351	376

Aurreko datuak aztertuta, honako hau azpimarratzen dugu:

- 2023an, absentzia orduak, eta, beraz, pertsona baliokideek, ehuneko 34 egin zuten gora 2018arekin alderatuta, eta ehuneko zazpi 2022rekin alderatuta.
- 2023an, hau izan zen absentzia mota bakoitzaren ehunekoa, guztien artean:



- Absentzia motaren arabera zifra horiek pertsona baliokideetara eraldatzen baditugu, emaitza hau izanen da:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Oporrak/norberaren gauzetarako egunak	162	157	158	172	184	202
Gaixotasuna/istripua	73	86	124	101	119	117
Amatasuna/aitatasuna	17	23	20	26	28	33
Baimenak	29	33	18	19	20	24
Pertsona baliokideak, guztira	281	299	320	318	351	376

2023an, langile horien absentzia orduak betetzeko, lanaldi osoko 376 pertsona gehiago kontratatu beharko ziren urtebetez.

Absentzia indizea, lanbide kategoriaren arabera

Aztertutako aldiaren, lanpostuan izandako absentzia indizea, lanbide kategoriaren arabera, honako hau da:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	16,72	18,20	19,06	18,82	20,61	21,30
Pediatriako fak.	21,97	23,32	27,40	24,98	26,42	27,31
Erizaintzako lang.	19,24	19,87	19,16	18,92	21,32	21,95
Administrazio lang.	15,25	15,92	16,76	15,89	15,93	17,01
Absentzia indizea, guztira	17,67	18,60	18,94	18,40	19,99	20,75

2023an, lanpostuko absentzia indizea ehuneko 20,75era iritsi zen, hots, ehuneko hiru puntu igo da 2018koaren aldean.

Aldi horretan, lanbide kategoriaren arabera portaera oso bestelakoa da: pediatriako fakultateko ehuneko 27,31ko indizea dute, alegia, 5,34 puntuko igoera, eta administrariak, aldiz, ehuneko 17,01eko indizea eta 1,76 puntuko igoera.

Benetako langile baliokideak

Aurreko puntuko absentiak kontuan edukitzen baditugu, hau izan da benetako langile baliokideen bilakaera:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	408	425	418	415	410	412
Pediatriako fak.	69	67	63	63	68	66
Erizaintzako lang.	513	521	560	592	586	608
Administrazio lang.	271	274	285	300	303	307
Guztira	1.261	1.287	1.325	1.371	1.366	1.393

Benetako langile baliokideak, guztira, ehuneko 11 igo dira, baina kategoriaren arabera azterketa oso desberdina da. Hala, erizaintzako langileak ehuneko 19 igo dira, administrazio langileak ehuneko 13, baina familia medikuntzako fakultatekoak ehuneko bat baino ez dira igo, eta pediatriakoak ehuneko lau egin dute behera.

3.1.3 Langileen etorkizuneko prestasunaren inguruko aurreikuspenak

Langileen batez besteko adin haztatua, lanbide kategoriaren arabera

Langileen batez besteko adin haztatua lanbide kategoriaren arabera kalkulatu, eta honako emaitza hau lortu dugu:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	51,5	52,0	52,5	52,6	52,3	52,0
Pediatriako fak.	47,5	46,9	46,7	46,9	46,4	46,6
Erizaintzako lang.	45,8	45,7	44,7	44,3	44,8	45,0
Administrazio lang.	48,6	49,6	49,9	49,2	49,5	50,2
Batez besteko adin haztatua, guztira	48,3	48,5	48,3	47,9	48,0	48,2

2023an, langileen batez besteko adin haztatua 48,2 urtekoa izan zen, aztertutako gainerako urteetakoaren antzekoa.

Lanbide kategoriaren araberrako emaitzen artean aldeak daude. Batez besteko adinik altuena familia medikuntzako fakultatiboena da, 52 urte; ostera, erizaintzako langileena, 45.

Erretiroen aurreikuspenak, lanbide kategoriaren arabera

Taula honek 2023-2034 aldian urte bakoitzean 65 urtetik gorako adina izanen luketen pertsonen kopurua jasotzen du:

Lan. kat.	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032	2033	2034	Guz-tira
Fam. med. fak.	19	24	24	20	14	19	18	35	16	18	14	18	239
Pediatriako fak.	1	4	3	4	-	2	4	3	1	3	4	1	30
Eriz. lang.	4	12	21	42	30	45	36	23	26	24	27	21	311
Admin. lang.	9	4	11	16	17	20	18	18	24	26	14	30	207

Hamar urteko epean, erizainen kolektiboko 311 pertsonak, familia medikuntzako 239k, 207 administrazio langilek eta 30 pediatrak hartzen ahal dute erretiroa. Plantillako egungo lanpostuei dagokienez, erretiroen aurreikuspen horiek ehuneko hau hartzen dute: erizainen kasuan, ehuneko 50; familia medikuntzako fakultatiboaren kasuan, ehuneko 49; administrazio langileen kasuan, ehuneko 62; eta pediatriako fakultatiboaren kasuan, ehuneko 28.

OOLko barneko mediku egoiliarrentzako prestakuntzan izandako sarrerak

Familia medikuntzako fakultatiboak sartzeko oso alderdi garrantzitsua da espezialitate horretan barneko mediku egoiliar gisa (aurrerantzean, BAME) egin behar duten alde aurreko prestakuntza. Taula honek Nafarroan aztertutako aldian espezialitate horretarako eskaini diren plazak, plaza horietan sartu diren pertsonen kopurua eta prestakuntza amaitu dutenena erakusten ditu:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Iruñeko barrutian eskainitako plazak	22	22	32	32	32	32	24
Tuterako barrutian eskainitako plazak	8	8	8	8	8	8	8
Eskainitako lanpostuak, guztira	30	30	40	40	40	40	32
Eskainitako plazetako sarrerak	30	29	40	40	39	23	23*
Prestakuntza amaitu duten pertsonak	21	22	26	29	31	36	Datua ez dago eskuragarri

*Plazetako bat sartzeko zain dago, hainbat administrazio izapide direla eta.

Aldi osoan 252 plaza eskaini dira guztira, eta 224 pertsona sartu dira horietan.

Deigarria da 2023. eta 2024. urteetan plaza eskaintzan sarrera gutxi egon zirela. Alde horretatik, hori ez da Nafarroakoa bakarrik, eta Estatuko gainerako lekuetan ere gertatu da, non 2024an egingdako azken plaza eskaintzan, Nafarroakoak barne, 2.492 plaza sartu ziren, eta horietatik 459 bete gabe geratu ziren.

Bestalde, kontuan izan behar da prestakuntza horretan sartzeak ez duela esan nahi prestakuntza hori egin duten pertsonak Nafarroan lan egiten amaituko dutenik. Izan ere, egiaztatu dugu aztertutako aldian Nafarroan prestakuntza hori amaitu zuten pertsona guztietatik, 2023an, ehuneko 50ek bakarrik zuela kontratua O-NOZerekin.

Lan publikoaren eskaintzen egoera

Jarraian, txosten honen aztergai den aldian onetsitako lan publikoaren eskaintzen⁹ eta dagozkien deialdien laburpen taula dugu, baita txosten hau idazteko datan duten egoerarena ere:

	Birjarpeneko LPEetako plaza kopurua				Egonkortzeko LPEetako plaza kopurua	
	NAOn argitaratutako plaza kopurua	Deitu beharrekoreko plazak*	Betetako plaza kopurua	Betetzeko dauden plaza kop.	Merezimendu lehiaketa bidez deitutako eta betetako plazak	Oposizio lehiaketa bidez deitutako eta betetako plazak
Fam. med. fak.**	150	136	69	67	32	6
Pediatriako fak.	45	51	28	23	6	1
Erizaintzako lang.	226	148	62	86	73	8
Guztira	421	335	159	176	111	15

* Deitu beharrekoreko plazak aurretiko barne mugikortasuneko prozesuen ondoren sortu dira.

** Plaza horietan ez dira sartzen larrialdietako fakultatiboak.

Ikus daitekeenez, birjarpeneko LPEetan aurreikusitako 421 plazetatik, eta aurreikusitako barne mugikortasuneko prozesuen ondoren, 159 plaza bete ziren, eta 176 betetzeko geratu ziren. 176 plaza horietatik, familia medikuntzako eta pediatriako fakultatiboan 67 eta 23 plaza oposizio fasean daude gaur egun, eta, hortaz, erizaintzako langileen 86 plazetarako deialdia egitea baino ez da falta.

Egonkortasun taulako plazak uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen babesean deituak (eta beteak) dira. Lege horren bidez neurriak hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu Publikoan dagoen Behin-behinekotasuna Murrizteko Premiazko Neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz. Plaza horiek 126 izan ziren guztira.

Laburbilduz, O-NOZek dituen baliabideei dagokienez, plantilla organikoko plazak ehuneko 14 areagotu diren arren, horien ehuneko 29 hutsik daude, eta ehuneko 89 aldi baterako beteta. Hamar urteko epean 787 pertsonak erretiroa hartzen ahal dutenez, deitzeko dauden 176 lanpostuetarako deialdia egin beharko litzateke, eta behar bezala planifikatu beharko litzateke lan publikoaren eskaintzen onespina, plantilla berrezartzeko, eta, gainera, jendea familia medikuntzako espezialitateko prestakuntzan sar dadin bultzatzeko.

Orobat, egiaztatu dugu lanpostuen antolamendu egitura araudian ezarritako optimoaren araber diseinatuta dagoela, baina, bestalde, kontuan eduki behar da, nahiz eta benetako langile baliokideak ehuneko 11 areagotu diren, fakultatiboek zero inguruko aldakuntza balioak edo negatiboak dituztela.

⁹ Ez dugu lortu administrazio langileei buruzko daturik, langile horien LEPak ez baititu O-NOZek kudeatzen, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak baizik.

3.2 BIGARREN HELBURUA. OOLRAKO IRISGARRITASUNA BERMATZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

OOLko osasun etxeetako lanpostuen antolamendu egitura herritarrei zerbitzu egokia emateko diseinatuta dago, araudian ezarritako ratioen arabera. Hala ere, egiaztatu dugu lanpostuetan absentziak daudela eta horiek bete egin behar direla diseinatutako antolamendu horrek behar bezala funtziona dezan eta irisgarritasunari kalterik eragin ez diezaion.

Jarraian, O-NOZek 2018-2023 aldian absentzia horiek estaltzeko eta OOLrako irisgarritasuna bermatzeko hartutako neurriak azalduko ditugu.

3.2.1 Irisgarritasuna bermatzeko baliabide ekonomikoak

Erabilgarri dauden kontratazio zerrenden azterketa, lanbide kategoriaren arabera

Araudiari jarraikiz, langileen absentziak betetzeko O-NOZek erabili behar duen lehen aukera aldi baterako kontratazioa da. Jarraian, kontratazio horiekin lotutako hainbat alderdi aztertuko ditugu.

- Prest daudenen kontratazio zerrendak: O-NOZek datu hauek eman dizkigu 2023ko abenduaren 31ko kontratazio zerrendei buruz eta 2023ko apiriletik urte bereko¹⁰ abendura arte egindako eskaintzei buruz:

a) 2023ko abenduaren 31n, 11.281 pertsona zeuden aktibo kontratazio zerrendetan, xehetasun hauen arabera:

	Prest ez dauden pertsonak	Kontratua duten eta prest dauden pertsonak	Kontraturik ez duten eta prest dauden pertsonak	Guztira pertsonak
Familia medikuntzako fak.	136	177	35	348
Pediatriako fak.	13	27	8	48
Erizaintzako lang.	2.218	2.256	439	4.913
Administrazio lang.	3.131	1.127	1.714	5.972
Guztira	5498	3.587	2.196	11.281

Zerrendako pertsonen ehuneko 49 ez zeuden prest, ehuneko 32 prest zeuden baina kontratua zuten indarrean, eta gainerako ehuneko 19a prest.

Zerrendako pertsonen ehuneko 53 administrazio langileen kolektibokoak ziren, ehuneko 44 erizaintzakoak eta gainerako ehuneko hirua bakarrik fakultatiboen kolektibokoa.

b) 2023ko apiriletik abendura bitartean, iraupen luzeko eta laburreko 4.083 kontratu eskaintza kudeatu ziren, honako xehetasun hauen arabera:

Lanbide kategoriak	Eskaintzaren egoera	Eskaintza kop.	Deien batez besteko kop.	Deitutako hautagaien Batez besteko kop.
Medikuak fakultatiboak	Erantzunda	145	26	15
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	126	40	21
Medikuak fakultatiboa	Erantzunda	21	2	2
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	25	5	4
Langileak langileak	Erantzunda	1.481	25	16
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	153	49	39
Langileak langileak	Erantzunda	2.097	7	5
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	35	29	24
Guztira		4083	17	11

¹⁰ 2023ko apirilean, aplikazio berri bat ezarri zen deiak kudeatzeko; beraz, data horretatik aurrerako datuak soilik ditugu, aurretik erabili ohi zen aplikazioak ez baitzuen modurik ematen datu-ustiaketa masiborik egiteko.

Kontratazio eskaintzen ehuneko 51 bete egin zen, eta gainerako ehuneko 49a bete gabe geratu zen, hautagairik ez zegoelako. Eskaintza horiek kudeatzeko, horietako bakoitzetik batez beste 17 dei egin zitzaizkien batez beste 11 pertsonari.

Lanbide kategoriaren arabera oso desberdinak dira. Hautagairik ez zegoelako, bete gabe geratu zen administrazio langileen eskaintzen ehuneko bi, erizaintzako langileen ehuneko bederati, familia medikuntzako fakultatiboen ehuneko 46 eta pediatriako fakultatiboen ehuneko 54.

Iraupen luzeko kontratazio eskaintzei soilik erreparatzen badiegu —horiek inpaktu handiagoa dute lanpostuko absentzien estalduran—, honako hauek dira emaitzak:

Lanbide kategoria	Eskaintzaren egoera	Eskaintza kop.	Deien batez besteko kop.	Deitutako hautagaien Batez besteko kop.
Medikuak fakultatiboa	Erantzunda	83	44	24
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	13	62	31
Medikuak fakultatiboa	Erantzunda	13	3	2
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	5	6	5
Langileak langileak	Erantzunda	149	113	60
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	1	310	175
Langileak langileak	Erantzunda	24	41	29
	Estali gabe, hautagairik ez dagoelako	-	-	-

Iraupen luzeko 288 kontratazio eskaintzetatik ehuneko 93 bete egin zen, eta gainerako ehuneko zazpia bete gabe geratu zen, hautagairik ez zegoelako.

Lanbide kategoriaren arabera oso desberdinak dira. Hautagairik ez zegoelako, bete gabe geratu zen pediatriako fakultatiboen eskaintzen ehuneko 28, familia medikuntzako fakultatiboen ehuneko 14 eta erizaintzako langileen ehuneko bat. Administrazio langileenak, berriz, kasu guztietan bete ziren.

Langileen aldi baterako kontratazioetara bideratutako gastua

2018-2023 aldian, txosten honetan kontuan hartutako lanpostu absentziak estaltzeko kontratazio horietara bideratutako gastua 61,36 milioikoa izan zen, honako xehetasun honen arabera:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.	3.649.810	3.377.684	2.579.278	1.729.991	1.721.867	2.064.303
Pediatriako fak.	189.123	105.867	156.882	224.706	197.351	302.433
Erizaintzako lang.	4.796.824	5.623.646	5.851.225	4.283.601	4.902.333	7.312.846
Admin. lang.	1.511.393	1.763.111	2.157.463	2.106.696	2.203.455	2.548.452
Guztira	10147150	10.870.308	10.744.848	8.344.994	9.025.006	12.228.034

Aldi osoan, gastuaren ehuneko 53 erizaintzako langileak kontratatuzko erabili zen, ehuneko 25 familia medikuntzako fakultatiboak kontratatuzko, ehuneko 20 administrazio langileak kontratatuzko eta gainerako ehuneko bira pediatriako fakultatiboak kontratatuzko.

2023ko gastuari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Gastua 12,23 milioi eurokoa izan zen, alegia, 2018an eta 2022an baino ehuneko 21 eta 35 gehiago gastatu zen, hurrenez hurren.
- Gastuaren ehuneko 60 erizaintzako langileekin egindako kontratuei dagokie, ehuneko 21 administrazio langileekin egindakoei, ehuneko 17 familia medikuntzako fakultatiboekin egindakoei eta ehuneko bi pediatriakoekin egindakoei.
- 2018arekin alderatuta, nabarmentzekoa da lanbide kategoria guztietako kontratuetan egindako gastuaren igoera, familia medikuntzako fakultatiboen kontratuetan izan ezik, horien gastua ehuneko 43 jaitsi baita.

Aldi horretan kontratatutako orduaren gastuaren bilakaera honelakoa izan zen:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. (%) 2023/2018
Familia med. fakultatiboa	41,8	46,3	45,2	47,2	50,2	56,2	34
Pediatriako fakultatiboa	41,2	41,6	47,5	41,3	44,3	53,7	30
Erizaintzako langileak	31,0	32,1	32,1	32,6	34,1	36,0	16
Administrazio langileak	19,0	20,4	21,0	21,5	22,4	24,1	27
Guztira	31,1	32,2	31,0	30,6	32,0	34,5	11

2023an, kontratatutako orduaren kostua 34,5 eurokoa izan zen, 2018an baino ehuneko 11 handiagoa.

Lanbide kategoria bakoitzeko orduko gastuen artean alde nabarmena dago: familia medikuntzako fakultatiboen kasuan 56,2 eurokoa da, eta administrazio langileen kasuan, 24,1 eurokoa.

Fakultatiboen kasuan, 2023an kontratatutako orduaren gastuaren bilakaera hileko 400 euroko soldata igoerak baldintzatzen du, eta, administrazio langileen kasuan, ehuneko hamarreko igoerak. Igoera horiek Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatu zenean onetsi ziren.

Egindako kontratuen azterketa

2018-2023 aldiko gastua 25.882 kontraturi dagokie, lanbide kategoriaren arabera:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.	574	523	287	297	487	471
Pediatriako fak.	47	13	11	17	18	17
Erizaintzako lang.	2.721	2.314	1.272	606	965	1.308
Administrazio lang.	2.617	2.355	2.056	2.172	2.409	2.325
Kontratuak, guztira	5.959	5.205	3.626	3.092	3.879	4.121

Aldi osoan, kontratuen ehuneko 54 administrazio langileei dagokie, ehuneko 35 erizaintzako langileei, ehuneko hamar familia medikuntzako fakultatiboei eta gainerako ehuneko bata pediatriako fakultatiboei.

2023an, nabarmentzekoa da kontratuak ehuneko 31 murriztu direla 2018arekin alderatuta, nahiz eta 2022arekin konparatuta ehuneko sei areagotu diren.

Urte bakoitzean kontratatutako pertsona kopurua hau izan zen:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.	125	117	93	80	96	98
Pediatriako fak.	12	11	8	11	14	12
Erizaintzako lang.	488	498	424	290	368	517
Administrazio lang.	249	266	271	411	361	373
Pertsonak, guztira	874	892	796	792	839	1.000

2023an 1.000 pertsona kontratatu ziren, 2018an eta 2022an baino ehuneko 14 eta 19 gehiago, hurrenez hurren. Lanbide kategoriaren arabera, azpimarratzekoa da erizaintzan kontratatutako pertsonen kopurua ehuneko 40 igo dela 2022tik.

2023an, familia medikuntzako fakultatiboen kolektiboko pertsona bakoitzari, batez beste, bost kontratu egin zitzaizkion; pediatriako fakultatiboen kasuan, 1,4 kontratu; erizaintzako langileei, 2,5 kontratu; eta administrazio langileei, 6,2.

Kontratuen batez besteko iraupena egunetan honako hau izan zen aldi horretan:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/2018 (%)
Familia med. fak.	38	33	62	36	29	21	-45
Pediatriako fak.	42	114	169	152	110	110	162
Erizaintzako lang.	28	34	63	95	76	52	86
Administrazio lang.	10	14	14	17	17	23	130
Batez besteko iraupena, guztira	22	25	37	39	36	33	50

2023an, kontratuen batez besteko iraupena 33 egunekoa izan zen, 2018an baino ehuneko 50 gehiago.

Lanbide kategoriaren araberrako emaitzak nabarmen desberdinak dira. Hala, pediatriako fakultatiboen kasuan, batez besteko iraupena 110 egunekoa izan zen 2023an, eta 42 egunekoa 2018an. Bestalde, familia medikuntzako iraupena 21 egunekoa izan zen, eta 38 egunekoa 2018an.

Kontratuak aztertzean, ordezkapenak egiteko arrazoen SAP-GGBB kategorizazioan gorabeherak hauteman ditugu, batez ere pertsona batek hainbat pertsona aldi berean ordeztzen dituen kasuetan.

Aparteko jarduera egitea

Kontratatzeko prest dagoen langilerik ez badago, O-NOZeren hurrengo aukera langileek aparteko jarduera ordaindua egitea da produktibitate osagarriarekin.

2018-2023 aldian, zenbait ebazpen eman ziren osagarri hori ordaintzeko baldintzak eta lanbide kategoria bakoitzerako zenbatekoa arautzeko. Ebazpenak txosten honen 2. gehigarrian zehaztu ditugu. Eta honako alderdi garrantzitsu hauek jasotzen dituzte:

- 2018an eta 2019aren zati batean, osagarri hori lanbide kategoria bakoitzerako egindako ordu bakoitzeko zenbateko baten bidez ordaintzen zen. Urte horretako abenduan 1635/2019 Ebazpena onestearrekin batera, sistema aldatu egin zen fakultatiboentzat, eta bi modulu mota onetsi ziren osagarri hori ordaintzeko:

a) Pazienteei arreta emateko moduluak: modulu bakoitzarekin pazienteak artatzeko ordubete sortzen da, eta ordu hori egoki irizten diren ekintzetan bana daiteke, horien iraupen estandarra kontuan hartuta.

Moduluak ezin dira zatitu, eta osorik ordaintzen dira, ohiko ordutegitik kanpo laguntza eduki guztia burutu den edo ez kontuan izan gabe.

b) Aparteko jardueraren moduluak, hiru ekografia edo hiru kirurgia txiki edo erretinografia ez-midriatikoen 15 txosten egiteko.

- Taula honek 2018-2023 aldian lanbide kategoria bakoitzerako ordu/moduluaren zenbatekoaren bilakaera erakusten du:

Zenbateko unitarioa	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Fakultatiboa (familiako medikuntza eta pediatria)						
Kontsulta ordua	32	33,96*				
Moduluak	-	67,92	69,28	69,9	72,35	74,52
*Zenbateko hori moduluen sistemaren ordainketa aldatzen duen ebazpena indarrean sartu arte ordaindu da						
Erizaintzako langileak						
Kontsulta ordua	19,2	20,38	20,79	20,98	21,71	22,36

Aparteko jarduera egiten duten fakultatiboen orduko/moduluko zenbateko unitarioa ehuneko 133 igo zen aldi horretan, eta modulu bakoitzeko 74,52 euro izan ziren 2023an.

Aparteko jarduera egiten duten erizainei dagokienez, kontsulta orduaren zenbateko unitarioa ehuneko 16 igo zen aldi horretan.

Bi kasuetan, 2020tik aurrerako zenbateko unitarioak gorantz aldatu ziren funtzionarioentzat¹¹ onetsitako soldata igoerengatik.

- Osagarri hori ordaintzeko prozedura pertsona batek absentsia izanen duela aurreikusten denean hasten da. Une horretan, osasun etxeko zuzendaritzak zenbat modulutako absentsia izanen den erabaki, eta modulu horiek borondatez parte hartu nahi duten pertsonen artean banatu beharko ditu. Zehazki, produktibitate mota hauek aurreikusten dira, jarduera egiten duen pertsonaren lanaldiaren arabera:

a) Ohiko produktibitatea: langileak produktibitatea ohiko lanaldian burutzen duenean, gehienez ere bi modulu ezarrita.

b) Produktibitate mistoa: ohiko lanaldian beste profesional baten pazienteak artatu ondoren, lanaldia luzatu behar izan denean, langilearen edo beste langile baten kupoko beste paziente batzuk artatzeko. Kasu horretan, a) kasuko bi moduluez gain, beste bi modulu gehiago ordainduko dira lanaldiaren luzapen horrengatik.

c) Produktibitatea ohiko lanalditik kanpo: produktibitatea ohiko lanalditik kanpo egiten bada, modulu batetik hasi eta gehienez ere bost modulura arte ezartzen ahalko dira.

- Parte hartzea borondatezkoa da, eta aparteko jarduera egiten duen pertsonak ezin du lanaldi murrizketarik edo lanaldi partzialeko kontraturik izan.

- Aparteko jarduera egiten duten pertsonen ohiko ordutegiko arretan, agendako 250 minuturen balioak diren paziente propioei edo beste langileenei eman behar die arreta, eta beharrezkoa da paziente horietako bat gutxienez beste agenda batekoa izatea.

Pertsona batek gehienez sei modulu egiten ahalko ditu egun batean (bi ohiko ordutegian eta lau lanalditik kanpo).

- Egindako moduluen kontrola osasun etxeko zuzendaritzaren ardura da, eta kopia bat bidaliko dio barrutiko Profesionalen Zerbitzuari. Ondoren, beharrezkoa da Pazientearen Laguntzarako Zuzendaritzak onestea eta O-NOZeko zuzendari kudeatzailearen baimena jasotzea, ordainketa egiteko.

Osagarri horren ordainketari buruzko datuak ez zeuden eskuragarri 2018an SAP-GGBBn, eta, beraz, zenbatekoa kuantifikatzeko, kontzeptu horrengatiko ordainketa ebazpen guztiak eskatu genizkion O-NOZi, eta produktibitateagatiko guztizko gastua lortu genuen, OOLko larrialdietako langileak estaltzeko egindakoa barne.

Gure txostenean aztertu ditugun langileei gastuaren zer zati zegokien zehazteko, 2020-2023 aldian ohiko arretako eta larrialdietako langileak estaltzera bideratutako produktibitate gastuaren batez besteko ehunekoa kalkulatu genuen, eta 2018ko gastuari aplikatu genion. Horrela, taula honetan ageri diren zenbatekoak lortu genituen:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.	910.619	1.936.383	2.563.865	3.717.269	4.244.939	4.673.841
Pediatriako fak.	47.927	32.998	171.937	213.778	330.514	306.727
Erizaintzako lang.	2.630	5.940	46.828	25.073	23.445	13.754
Guztira	961176	1.975.320	2.782.630	3.956.121	4.598.898	4.994.323

2018-2023 aldian, O-NOZek 19,27 milioi gastatu zituen aparteko jarduera ordaintzeko. Gastua 4,99 milioikoa izan zen 2023an, hau da, 2018an eta 2022an baino ehuneko 420 eta bederatziki gehiago, hurrenez hurren.

Gastuaren bilakaera familia medikuntzako fakultatiboek jasotako ordainsariek baldintzatzen dute; izan ere, aldi horretako gastuaren ehuneko 94 dira, eta ehuneko 413 handitu da.

¹¹ 2020an, igoera hori ehuneko 2koa izan zen; 2021ean, ehuneko 0,9koa; 2022an, ehuneko 3,5koa; eta 2023an, ehuneko 3koa.

• Taula honek aztertutako aldiko urte bakoitzean osagarri hori jaso zuten pertsonen kopurua erakusten du:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.		454	474	482	525	545
Pediatriako fak.	Ez dago	54	67	66	70	73
Erizaintzako lang.	daturik	21	100	64	67	72
Pertsonak, guztira		529	641	612	662	660

2023an, 660 pertsonak jaso zuten osagarri hori; horietatik, ehuneko 83 familia medikuntzako fakultatiboak ziren, ehuneko 11 pediatriakoak eta gainerako ehuneko sei erizaintzako langileak. Pertsonen lanbide kategoriaren arabera banaketa antzekoa da aldi horretako gainerako urteetan.

• Taula honetan, aztertutako aldiaren pertsona bakoitzak osagarri horrengatik jaso duen urteko batez besteko ordainsaria ageri da:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia med. fak.		4.265	5.409	7.712	8.086	8.576
Pediatriako fak.	Ez dago	611	2.566	3.239	4.722	4.202
Erizaintzako lang.	daturik	283	468	392	350	327

2023an, batez besteko ordainsari altuena familia medikuntzako fakultatiboek dagokie (8.576 euro), ondoren pediatriako fakultatiboek (4.202 euro) eta erizaintzako langileek (327 euro).

Taula honek osagarri hori 2023an diru tarteen arabera jaso zuten fakultatiboek kopurua biltzen du:

	Familia med. fak. kop.	Pediatriako fak. kop.
>90.000 euro	1	-
80.000-90.000 euro	1	-
70.000-80.000 euro	4	-
60.000-70.000 euro	5	-
50.000-60.000 euro	1	-
40.000-50.000 euro	3	-
30.000-40.000 euro	15	-
20.000-30.000 euro	33	-
10.000-20.000 euro	60	3
5.000-10.000 euro	117	24
<5.000 euro	305	46

Txosten honen 1. eranskinean zerrendatutako bost osasun etxeetan 2023ko urtarrilerako produktibitateagatik ordaindutako gastua aztertu dugu, eta, oro har, gastua araudiaren arabera egin dela ondorioztatzen ahal dugu, baina hau azpimarratu nahi dugu:

• Osasun etxe guztietan koherentzia dago produktibitateari buruzko SAP-GGBB datuen artean (egun horretan egin da, ordezkotako pertsona, ordezkotutako pertsona eta absentziaren arrazoia), San Adriánen izan ezik, non kasu guztietan justifikatuta dauden zenbait inkoherentzia dauden, horietako batean izan ezik. Kasu horretan, absentzia ez dago erregistratuta SAP-GGBBn, eta, beraz, ezin dugu egiaztatu benetan ordezkotutako pertsona bere postuan egon ez zen egun horretan.

• Aztertutako bi osasun etxetan, absentziak estaltzeko onetsitako moduluen jardura hainbat pertsonaren artean banatu zen, araudiak baimentzen duen bezala, baina aparteko jardura egiten zen bakoitzean pertsona horietako batek bakarrik kobratzen zuen zegokion osagarria; kobrantza pertsona horien artean txandakatzen zen.

• Osasun etxe batean, aparteko jardura bidez, titularraren zerbitzu eginkizunengatik hutsik zegoen plaza bat bete zen; beste osasun etxe batean, «errefortzu» deituriko ustezko plaza bat bete zen, aparteko jarduerako plantillan ez zegoena.

Egoera horiek ez daude araudian jasota, eta, hortaz, ezin dira aparteko jardueraren bidez bete.

3.2.2 Lanpostuko absentzien eta zerbitzua ematearen estaldura maila


Lanpostuko absentzien estaldura maila

Lanpostuko absentzien estaldura maila kalkulatzeko, ordezkapen horietarako aldi baterako langileei kontratatutako orduen eta produktibitatearen arabera egindako orduen batura lanbide kategoriaren arabera lanpostuan izandako absentzia orduekin alderatu dugu, eta emaitza hau lortu dugu:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/2018
Familia med. fak.	84	83	61	61	58	57	-29
Pediatriako fak.	22	10	19	25	25	27	11
Erizaintzako lang.	76	82	84	59	57	73	-3
Administrazio lang.	82	83	87	85	82	79	-3
Absentzien estaldura maila, guztira	76	78	73	63	60	67	-9

2023an aztertutako OOLko langileen absentzien estaldura maila ehuneko 67koa izan zen, 2018an baino ehuneko bederatzi puntu txikiagoa. Jarraian, lanbide kategoriaren araberako emaitzak aztertuko ditugu.


- Familia medikuntzako fakultatiboak: langile horien lanpostuko absentzien ehuneko 57 bete zen 2023an, grafiko honetan ikusten denez:



2023an, 101 pertsona baliokideak izan zituzten absentziak lanpostuan, eta horietatik 58 ordezkatu ziren: 21 aldi baterako langileen kontratazioen bidez eta 37 aparteko jardueraren bidez.

Joera aldaketa argia dago langile horien lanpostuko absentziak betetzeko moduan; izan ere, 2018an, batez ere aldi baterako kontrataziora jotzen zen, horrela absentzien ehuneko 63 estali baitziren.


- Pediatriako fakultatiboak: lanpostu horretako absentiak ehuneko 20an bete ziren 2023an, jarraian jaso den bezala:



2023an, 24 pertsona baliokidek izan zituzten absentiak lanpostuan, eta horietatik hamar ordeztu ziren: lau aldi baterako langileak kontratatuta eta bi aparteko jardueraren bidez.


Kasu horretan, absentiak betetzeko modua ere aldatu egin da aldi horretan; izan ere, 2018an kontratazioak egitera jo zen guztiz, eta 2023an zati bat aparteko jarduerarekin estali zen.

- Erizainak: 2023an 171 pertsona baliokideren absentsiak izan ziren, eta ehuneko 73an bete ziren, honako xehetasun honen arabera:



171 pertsona baliokide horien absentsiak aldi baterako kontratazioekin estali ziren ia guztiz, eta halaxe egin da aztertutako aldi osoan zehar.

- Administrazio langileak: 2023an, horien absentsien ehuneko 79 bete zen, xehetasun hauen arabera:



Kasu horretan ere absentzia guztiak ordezkapenekin estali ziren aztertutako aldi osoan.

Zerbitzua ematearen estaldura maila

Osasun etxeetako CIASen araberako antolamendu egitura eta horien langile hornidura kontuan hartuta, zerbitzuak eman dituzten benetako langile baliokideak eta bete beharko ziren lanpostuko ordu teorikoak alderatu ditugu:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kontratatutako langile baliokideak (a)	577,88	569,62	572,34	552,98	558,59	561,44
Produktibitatearen araberako langile baliokideak (b)	18,64	27,03	24,44	34,65	39,00	41,14
Lanpostuko absentsiak (c)	101,21	108,14	116,15	109,11	120,24	124,81
Zerbitzua eman duten benetako langile baliokideak (a+b-c)	495,31	488,51	480,62	478,53	477,35	477,77
Beharrezko langileak, CIASeko lanpostuen egituraren arabera	498,67	506,99	509,49	515,99	519,99	524,49
Fakultatiboek emandako zerbitzu maila	% 99	% 96	% 94	% 93	% 92	% 91

Fakultatiboen CIASetan diseinatutako lanpostuen zerbitzu maila 2018an ehuneko 99 izatetik 2023an ehuneko 91 izatera iritsi da.

Izan ere, nahiz eta diseinatutako lanpostuak ehuneko bost igo diren aldi horretan, benetako langile baliokideak ehuneko lau jaitsi dira.

Ondorioz, diseinatutako antolamendu egiturak ezarritako ratioak betetzen baditu ere, estaldura ez da osoa, ezta fakultatiboei laguntzeko sortutako errefortzu plazekin ere.

3.2.3 Irisgarritasuna mantentzeko hartutako beste neurri batzuk

Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen 2019/2020 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntza gradua ezartzeko, guztira 60 plazarekin. OOLrako irisgarritasunari eustea ez zen izan gradu hori ematen hasteko arrazoi bakarra, baina epe laburrera/luzera eragin positiboa izan dezake OOLrako irisgarritasunean.

Plaza eskaintza hori mantendu egin zen ondorengo ikasturteetan, 2023-2024 ikasturtera arte. Urte horretan, uztailaren 25eko 698/2023 Errege Dekretua onetsi ondoren (horren bidez, unibertsitate publikoei zuzeneko dirulaguntzak ematea arautu zen, medikuntzako graduko plazen gehikuntza eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko inbertsioak finantzatzeko), plaza horiek 70eraino igo ziren, eta kopuru horri eutsi egin zaio 2024-2025 ikasturterako.

Era berean, gradu horretako ikasleen ehuneko 70 Nafarroatik kanpoko autonomia erkidegoetakoak dira.

Ondorioz, O-NOZek irisgarritasuna bermatzeko hartutako neurrien harira, ganberak uste du erakundeak ahalegin ekonomiko handia egin duela. Baliabideak bideratu ditu aldi baterako kontratazioak egiteko eta aparteko lanaldiak ordaintzeko, eta, gainera, beste neurri batzuk hartu ditu etorkizunari begira. Hala ere, neurri horiek ez dira nahikoak izan, eta ez da lortu OOLko langileen absentzia guztiak betetzea, hainbat arrazoi direla medio, hala nola kontratatutako langile falta. Aztertutako aldian, absentzia horien estaldura mailak eta zerbitzu teorikoaren prestazio mailak okerrera egin dute.

Hartutako neurriei dagokienez, araudiak dioen bezala, kontrataziora jo behar da beti lehentasunez, baldin eta langileak prest badaude; izan ere, aparteko jarduera baino neurri ekonomikoagoa da. Gainera, egiten den kontratu motaren arabera, laguntza jarraitutasun handiagoa izaten ahal da, eta horri esker, pazientearen arreta kalitate handiagoa izanen da.

3.3 HIRUGARREN HELBURUA. OOLKO BALIABIDEEN ERABILERA ETA HERRITARREK IRISGARritasunari BURUZ DUTEN PERTZEPZIOA

3.3.1 Herritarren maiztasuna OOLn

OTIa duten pertsonen artean kontsultara joaten diren pertsonen ehunekoa

Aztertutako aldian, OTIa duten pertsonen artean, urtean behin gutxienez kontsultara joaten diren pertsonen ehunekoa honako hau da:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/2018
Familia medikuntzako fak.	81	81	78	79	80	79	-2
Pediatriako fak.	92	92	88	87	90	89	-3
Familia medikuntzako eriz.	57	59	67	71	69	62	5
Pediatriako eriz.	74	76	80	87	85	79	5
OOLra jotzen duten pertsonen ehunekoa, guztira	85	85	86	87	88	86	1

Kontsultetara joaten diren eta OTIa duten pertsona guztien artean pazienteen ehunekoa antzekoa da aztertutako aldi osoan.

Lanbide kategoriaren araberrako datuak aztertuta, familia medikuntzan eta pediatrian 2023ko balioak 2018koak baino txikiagoak dira (ehuneko bi eta hiru puntu, hurrenez hurren). Erizaintzaren kasuan, ordea, ehuneko hori ehuneko 67ra iritsi zen 2023an, alegia, ehuneko zazpi puntu igo da.

Maiztasuna, OTIa duen pertsona bakoitzeko

Aztertutako aldiaren, honako hau da maiztasuna, OTIa duen pertsona bakoitzeko:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/2018
Familia medikuntzako fak.	5,05	4,99	5,00	4,86	4,60	4,33	-0,72
Pediatriako fak.	5,14	4,99	4,49	4,67	4,82	4,45	-0,69
Familia medikuntzako eriz.	3,02	3,19	3,69	3,93	3,54	3,15	0,13
Pediatriako eriz.	2,74	2,88	3,56	4,40	3,63	3,11	0,37
Batez besteko maiztasuna							
OOLn, pertsona bakoitzeko	8,04	8,13	8,59	8,83	8,19	7,50	-0,54

2023an, maiztasuna 7,5ekoa izan zen, 2018an baino txikiagoa (8,04). Lanbide kategorien maiztasunak behera egin du kasu guztietan, erizaintzako langileek egindako kontsulten kasuan izan ezik, zertxobait igo baita.

Maiztasuna, kontsultara joaten den pertsona bakoitzeko

OOLren kontsultara benetan joan diren pertsonak bakarrik kontuan hartuta aztertzen badugu maiztasuna, hauek dira emaitzak:

Lanbide kategoria	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	6,29	6,24	6,48	6,26	5,86	5,61
Pediatriako fak.	5,59	5,45	5,09	5,36	5,38	5,06
Familia medikuntzako eriz.	5,31	5,37	5,51	5,51	5,09	5,03
Pediatriako eriz.	3,72	3,79	4,46	5,05	4,28	3,91
Guztira	9,45	9,54	10,03	10,17	9,41	8,91

Maiztasuna 8,91 kontsultakoa izan zen 2023an, 2018an baino ehuneko sei gutxiago. 2023ko datua aztertutako aldiko baxuena da.

Bilakaera kategorien arabera aztertuz gero, joera antzekoa da, eta 2023an pazienteko bost kontsulta inguru izan ziren, pediatriako erizaintzaren kasuan izan ezik, 3,91ra jaitsi baitzen zenbaiteko hori.

Datuak kontsultara joan diren pertsonen adin tartearen arabera aztertu ditugu, adierazle horrek maiztasuna baldintzatzen duen ebaluatze aldera. Lanbide kategoriaren araberrako emaitzak honako hauek dira:

- Kontsulta familia medikuntzako fakultatiboekin: hauek dira pazienteen adin tartearen arabera multzokatutako datuak:

Adin tartea	2018	2019	2020	2021	2022	2023
15-64 urte	5,39	5,38	5,84	5,64	5,23	5,00
65-84 urte	7,88	7,71	7,41	7,10	6,74	6,49
85 urte edo gehiago	10,73	10,46	9,98	9,71	9,35	8,86
Guztira	6,29	6,24	6,48	6,26	5,86	5,61

Maiztasuna nabarmen desberdina da adin tartearen arabera, eta asko igotzen da adinak gora egin ahala. Adibidez, 2023an, 85 urte edo gehiagoko adin tartean 8,86 kontsulta egin ziren pertsonako, eta 15 eta 64 urte bitartean, aldiz, bost kontsulta.

Datuak OEO motaren arabera aztertzen baditugu, honelakoak dira:

Pazientearen adina	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
15-64 urte	Hirikoak	5,12	5,11	5,59	5,42	4,99	4,71
	Landa esk. handiak	5,6	5,57	5,92	5,67	5,14	4,99
	Landa esk. ertainak	5,4	5,41	5,83	5,75	5,53	5,31
	Landa esk. txikiak	5,46	5,52	5,85	5,78	5,76	5,64
	Eskualde bereziak	5,53	5,48	6,4	6,5	6,04	5,84
65-84 urte	Hirikoak	7,2	7,07	6,87	6,68	6,35	6,08
	Landa esk. handiak	8,51	8,29	7,89	7,28	6,64	6,49
	Landa esk. ertainak	8,14	7,97	7,56	7,32	7,13	6,78
	Landa esk. txikiak	8,39	8,2	7,55	7,42	7,63	7,67
	Eskualde bereziak	9,9	9,94	10,53	9,85	8,89	9,12
≥85 urte	Hirikoak	9,79	9,6	9,21	9,2	8,7	8,08
	Landa esk. handiak	10,58	10,24	9,7	9	8,39	8,12
	Landa esk. ertainak	10,69	10,54	10,12	9,76	10,03	9,56
	Landa esk. txikiak	12,23	11,98	11,39	11,33	11,68	11,29
	Eskualde bereziak	16,82	15,76	16,84	14,75	13,54	14,2

Alde esanguratsuak daude eskualde moten artean. Horrela, eskualde berezien eta landa eskualde txikien maiztasuna gainerakoena baino askoz handiagoa da. Hiriko eskualdeetan dago maiztasunik txikiena.

- Kontsulta pediatriako fakultatiboekin: hauek dira pazienteen adin tartearen arabera multzokatutako datuak:

Adin tartea	2018	2019	2020	2021	2022	2023
0-4 urte	7,96	7,78	6,88	7,86	7,89	7,19
5-9 urte	4,18	4,07	4,14	3,85	4,08	4,09
10-14 urte	3,71	3,65	3,92	3,89	3,68	3,52
Guztira	5,63	5,50	5,23	5,42	5,43	5,11

Maiztasunak behera egin du adin tarte guztietan. 0-4 urteko adin tartearen maiztasuna hiru tarteetatik handiena da, besteak beste, bizitzako lehen urteetan egin behar diren osasun azterketen ondorioz.

Kasu horretan, erlazioa alderantzizkoa da, eta pazienteak urteak betetzen doazen heinean, maiztasunak behera egiten du.

Taula honek kontsulta horien maiztasuna erakusten du, OEO motaren arabera:

Pazientearen adina	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
0-4 urte	Hirikoak	8,01	7,88	6,98	8,05	7,97	7,30
	Landa esk. hand.	7,74	7,48	6,7	7,55	7,54	6,65
	Landa esk. ert.	7,11	6,86	6,05	7,01	7,00	6,53
	Landa esk. txik.	7,40	7,36	6,20	6,53	7,42	7,24
	Eskualde bereziak	4,42	4,84	3,84	5,07	4,72	4,94
5-9 urte	Hirikoak	4,16	4,08	4,15	3,83	4,03	4,08
	Landa esk. hand.	4,17	4,03	4,16	3,88	4,10	3,94
	Landa esk. ert.	3,93	3,75	3,76	3,78	3,75	3,81
	Landa esk. txik.	4,12	3,99	4,06	3,68	4,39	4,53
	Eskualde bereziak	2,02	2,34	2,11	2,62	2,64	2,78
10-14 urte	Hirikoak	3,70	3,60	3,92	3,87	3,60	3,49
	Landa esk. hand.	3,79	3,81	4,04	3,97	3,75	3,43
	Landa esk. ert.	3,41	3,34	3,48	3,68	3,48	3,33
	Landa esk. txik.	3,37	3,40	3,07	3,60	3,84	4,01
	Eskualde bereziak	2,06	2,05	2,06	2,23	2,44	3,14

Berriz ere, maiztasunean alde nabarmenak daude OEO motaren arabera. Hiriko eskualdek, aurreko kasuan bezala, maiztasun txikiena dute, eta eskualde bereziek eta landa eskualde txikiek, berriz, handiena.

- Kontsulta familia medikuntzako erizainekin:

Adin tartea	2018	2019	2020	2021	2022	2023
15-64 urte	3,56	3,62	4,16	4,21	3,65	3,51
65-84 urte	7,33	7,52	7,42	7,45	7,29	6,99
85 urte edo gehiago	12,09	12,40	12,07	12,64	12,46	11,93
Guztira	5,31	5,37	5,51	5,51	5,09	5,03

Denbora tarte horretako maiztasunak behera egin du adin tarte guztietan. Datu horiek agerian uzten dute, berriz ere, arreta premiak nabarmen areagotzen direla pertsonaren adinak gora egin ahala. Izan ere, 85 urteko edo gehiagoko pertsonen maiztasuna 11,93koa izan zen 2023an, eta 3,51koa 15-64 urteko pertsonen artean.

Taula honek kontsulta horien maiztasuna erakusten du, OEO motaren arabera:

Pazientearen adina	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
15-64 urte	Hirikoak	3,4	3,5	4,0	4,0	3,5	3,4
	Landa esk. hand.	3,7	3,7	4,1	4,3	3,6	3,6
	Landa esk. ert.	3,7	3,7	4,2	4,3	3,7	3,6
	Landa esk. txik.	3,7	3,6	4,1	4,2	3,7	3,6
	Eskualde bereziak	4,2	3,9	4,6	4,3	4,1	4,0
65-84 urte	Hirikoak	6,7	6,9	6,8	6,8	6,8	6,5
	Landa esk. hand.	8,0	8,2	7,8	7,9	7,5	7,4
	Landa esk. ert.	7,7	7,8	7,7	8,0	7,6	7,4
	Landa esk. txik.	7,7	8,0	7,9	7,7	7,8	7,4
	Eskualde bereziak	8,8	9,2	9,7	8,9	8,6	8,7
≥85 urte	Hirikoak	11,2	11,7	10,9	11,7	11,5	10,8
	Landa esk. fand.	12,0	12,6	12,2	13,0	12,7	12,3
	Landa esk. ert.	12,1	11,8	11,8	12,4	12,8	12,6
	Landa esk. txik.	13,2	13,2	13,1	13,2	13,5	12,9
	Eskualde bereziak	15,2	14,9	15,0	14,8	14,5	14,8

Alde esanguratsuak daude eskualde moten artean. Horrela, eskualde berezien eta landa eskualde txikien maiztasuna gainerakoena baino askoz handiagoa da. Hiriko eskualdeetan dago maiztasunik txikiena.

- Kontsulta pediatriako erizainekin:

Adin tartea	2018	2019	2020	2021	2022	2023
0-4 urte	5,05	5,27	6,25	7,03	6,12	5,66
5-9 urte	2,58	2,59	3,15	3,75	3,10	2,79
10-14 urte	2,87	2,90	3,48	3,83	3,18	2,93
Guztira	3,72	3,79	4,46	5,05	4,28	3,91

2023an, maiztasunak gora egin zuen adin tarte guztietan, 2018koarekin alderatuta, baina behera 2022koarekin konparatuta. 0-4 urteko adin tartetaren maiztasuna hiru tartetetik handiena da, besteak beste, bizitzako lehen urteetan egin behar diren osasun azterketen ondorioz.

Kasu horretan ere ikusten da pediatriako pazienteek urteak betetzen dituzten heinean, arreta premiak murriztu egiten direla.

Taula honek kontsulta horien maiztasuna erakusten du, OEO motaren arabera:

Pazientearen adina	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
0-4 urte	Hirikoak	5,1	5,3	6,3	7,0	6,2	5,6
	Landa esk. hand.	4,8	5,0	5,8	6,7	5,7	5,3
	Landa esk. ert.	5,0	5,4	6,4	6,8	6,1	6,2
	Landa esk. txik.	4,6	4,8	5,8	7,1	5,9	5,1
	Eskualde bereziak	4,2	4,2	5,4	5,6	4,4	4,6
5-9 urte	Hirikoak	2,6	2,6	3,1	3,4	3,1	2,7
	Landa esk. hand.	2,5	2,6	3,1	3,8	3,1	2,8
	Landa esk. ert.	2,5	2,5	3,2	4,5	3,1	2,9
	Landa esk. txik.	2,6	2,5	3,3	4,4	3,0	2,8
	Eskualde bereziak	2,4	2,1	3,3	3,9	2,1	2,2
10-14 urte	Hirikoak	2,9	2,9	3,4	3,5	3,2	2,9
	Landa esk. hand.	2,8	2,8	3,5	4,0	3,2	2,9
	Landa esk. ert.	2,7	2,9	3,4	4,3	3,0	3,0
	Landa esk. txik.	2,7	2,6	3,4	4,0	2,9	2,9
	Eskualde bereziak	2,6	2,2	4,0	3,2	2,4	2,1

Kasu horretan ere maiztasuna handiagoa da, baina adin txikiagoko pertsonen artean, logikoa den bezala. Dena den, ez da maiztasun patroia bera ikusten OEO motaren arabera. Kasu horretan ere, adin tarteren batean maiztasuna handiagoa da hiriko eskualdeetan, gainerakoan aldean.

3.3.2 Herritarrek jasotako arreta mota

Herritarrek eskatutako kontsultak

Taula honetan, 2018-2023 aldian herritarrek eskatutako kontsulten eta OOLko langileen kategoriek programatutako kontsulten ehunekoa ageri da:

Langile mota	Kontsulta mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	Eskatutako kontsulta (%)	71	70	64	62	63	65
	Programatutako kontsulta (%)	29	30	36	38	37	35
Pediatriako fak.	Eskatutako kontsulta (%)	70	67	56	51	56	57
	Programatutako kontsulta (%)	30	33	44	49	44	43
Familia med. erizaina	Eskatutako kontsulta (%)	42	43	47	48	48	45
	Programatutako kontsulta (%)	58	57	53	52	52	55
Pediatriako erizaina	Eskatutako kontsulta (%)	34	32	38	41	41	37
	Programatutako kontsulta (%)	66	68	62	59	59	63
Eskatutako kontsultak, guztira (%)		60	59	56	55	55	55
Programatutako kontsultak, guztira (%)		40	41	44	45	45	45

Aldi osoan eta kontsulta guztiei dagokienez, programatutako kontsultak ehuneko bost puntu igo dira (ehuneko 45 izan dira azkenean), pazienteek eskatutakoen aldean (bost puntu jaitsi dira).

Portaera eta zifrak desberdinak dira kontsulta egiten duen pertsonaren lanbide kategoriaren arabera; adibidez, familia medikuntzako fakultatiboek programatutako kontsultak ehuneko 35 izan ziren 2023an, eta pediatriako erizainek programatutakoak, aldiz, ehuneko 63, guztien artean.

Aurrez aurreko eta telefono bidezko kontsultak

Taula honetan, aztertutako aldian aurrez aurreko kontsulten eta aurrez aurrekoak ez diren ehunekoaren bilakaera ikusiko dugu:

Langile mota	Kontsulta mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	Aurrez aurreko kontsultak (%)	71	71	37	41	52	58
	Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak (%)	29	29	63	59	48	42
Pediatriako fak.	Aurrez aurreko kontsultak (%)	81	80	49	54	66	72
	Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak (%)	19	20	51	46	34	28
Familia med. erizaina	Aurrez aurreko kontsultak (%)	78	77	55	57	65	73
	Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak (%)	22	23	45	43	35	27
Pediatriako erizaina	Aurrez aurreko kontsultak (%)	82	80	58	57	65	75
	Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak (%)	18	20	42	43	35	25
Aurrez aurreko kontsultak, guztira (%)		75	74	46	49	59	66
Aurrez aurrekoak ez diren kontsultak, guztira (%)		25	26	54	51	41	34

Aurrez aurreko kontsulten kopuruak behera egin du —bederatzi puntu galdu dituzte—, aurrez aurrekoak ez diren aldean.

Egia bada ere, 2020an, COVID-19aren pandemiak arreta emateko eredia baldintzatu zuela, hurrengo urteetan, txosten hau idatzi den egunera arte, aurrez aurreko kontsultek pisua hartu dute, baina ez dira pandemiaren aurreko balioetara itzuli.

Datuak lanbide kategoriaren arabera aztertuz gero, aurrez aurreko kontsultek beheranzko joera dute guztietan. Hala ere, joera hori nabarmenagoa da familia medikuntzako fakultatiboen kontsultetan —ehuneko 13 puntu jaitsi dira—, familia medikuntzako erizainek egindakoen aldean —bost puntu egin dute behera—.

3.3.3 Aurrez abisatu gabe kontsultara joaten ez diren pertsonen ehuneko

Aldi osoan, kontsulteren ehuneko hiru ezin izan zen egin, hitzordua zuen pertsona ez zelako kontsultara joan, aldeaz aurretik abisatu gabe. Hona hemen urtearen eta kontsulta motaren arabera xehetasunak:

Kontsulta mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	2	2	1	2	3	3
Pediatriako fak.	3	3	2	2	3	3
Familia med. erizaina	3	3	2	2	3	3
Pediatriako erizaina	4	5	3	3	4	5
Guztira	3	3	2	2	3	3

2023an, ehuneko hirukoa izan zen, eta zifra hori lanbide kategoria guztiei aplikatzen ahal zaie, pediatriako erizainei izan ezik; hitzordua zuten pertsonen ehuneko bost ez zen joan azken horien kontsultetara.

Zifra baxuak diruditen arren, aldi osoan guztira 784.480 kontsulta ez ziren egin, honako xehetasun honen arabera:

Kontsulta mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Familia medikuntzako fak.	59.360	59.689	30.162	46.351	65.795	67.410
Pediatriako fak.	13.881	15.268	7.658	10.114	13.831	14.224
Familia med. erizaina	50.572	55.411	35.453	47.780	54.757	55.309
Pediatriako erizaina	12.311	13.809	10.826	13.913	15.685	14.911
Guztira	136.124	144.177	84.099	118.158	150.068	151.854

Kontsulta bakoitzak batez beste 10 minutu irauten dituela kalkulatzeko badugu, 2023an egin ez den jarduera hori 14 pertsona baliokide izanen lirake.

3.3.4 Agenden diseinu teorikoaren analisia

Agendak antolatzeko proposamenen arabera herritarrei eskaintzen ahal zitzaizkien hitzordu teorikoak (dauden CIASak, langileen baliabideak eta urte bakoitzeko lanegunak kontuan hartuta) eta benetan egindako jarduera alderatu ditugu.

Halaber, benetako langile baliokideen eta CIASetan aurreikusitako langileen ratioa sartu dugu azterketan.

Fakultatiboen (familia medikuntzakoak eta pediatriakoak) kasuan bakarrik egin dugu azterketa hori; izan ere, erizainei dagokienez, ez dugu daturik kronikoekin edo prozesu akutuekin dituzten pazienteekin kontsultak eta abar egiten dituzten CIASik gabe sortutako plazen agenda teorikoei buruz.

Hona hemen lortutako emaitzak:

		2018	2019	2020	2021	2022	2023
Hirikoak	Benetako langile baliokideak/CIASetan aurreikusitako langileak (%)	91	90	88	89	88	87
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	89	88	92	96	105	95
Landa esk. handiak	Benetako langile baliokideak/CIASetan aurreikusitako langileak (%)	99	102	96	90	92	91
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	102	99	100	100	109	100
Landa esk. ertainak	Benetako langile baliokideak/CIASetan aurreikusitako langileak (%)	100	104	103	99	96	96
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	81	80	86	92	105	96
Landa esk. txikiak	Benetako langile baliokideak/CIASetan aurreikusitako langileak (%)	107	116	114	112	112	110
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	73	74	75	79	97	92
Eskualde bereziak	Benetako langile baliokideak/CIASetan aurreikusitako langileak (%)	95	125	108	105	99	103
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	41	40	49	51	55	57
Guztira	Benetako langile baliokideak/CIA-Setan aurreikusitako langileak (%)	96	97	94	93	92	91
	Benetako hitzorduak/hitzordu teorikoak (%)	89	88	91	94	104	95

2022an izan ezik —agenda proposamena aldatu eta egunean aurreikusitako hitzordu kopurua murriztu zen—, gainerako urteetan, hitzordu teorikoak baino benetako hitzordu gutxiago izan dira, baina ehunekoak hobera egin du, 2018an ehuneko 89 izatetik 2023an ehuneko 95 izatera igaro baita. Deigarria da 2023an ehunekoak 2022ko gorakadari ez eustea, kontuan edukita, gainera, hitzordu teorikoen kopurua nabarmen jaitsi dela kontsulta bakoitzaren denbora luzatu delako.

OEO motaren araberrako ratioa oso desberdina da; adibidez, eremu bereziena da baxuena, ziurrenik arreta ematen zaien biztanleek ez dutelako kontsulta gehiago egitea eskatzen. Kontrakoa gertatzen da landa eskualde handietan. Horien ratioa altuena da, eta zenbait urtetan ehuneko 100etik gorakoa da. Horrek esan nahi du agendak indarrez betetzen ariko direla aurreikusi baino pertsona gehiagori emateko arreta.

OOLko langileek egindako jardueraren bilakaera

OOLko langileen eguneko batez besteko kontsulta kopuruaren bilakaera aztertu dugu, OEO motaren arabera, eta emaitza hau izan da:

		2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/18 (%)
Familia med. fak.	Hirikoak	26,6	27,0	26,9	26,4	25,5	23,9	-11
	Landa esk. hand.	28,8	28,8	28,3	26,3	24,5	23,3	-24
	Landa esk. ert.	22,8	23,4	23,6	23,5	23,5	22,3	-2
	Landa esk. txik.	21,9	22,2	21,9	21,9	21,9	21,6	-1
	Eskualde bereziak	12,5	12,5	13,7	13,8	14,5	14,4	13
Pediatriako fak.	Hirikoak	18,6	18,4	17,0	17,3	17,8	16,4	-13
	Landa esk. hand.	18,4	18,0	16,8	16,8	17,1	15,1	-22
	Landa esk. ert.	15,2	15,2	14,2	15,5	16,2	14,4	-5
	Landa esk. txik.	14,5	14,1	13,6	13,3	14,7	14,3	-2
	Eskualde bereziak	7,7	7,7	7,6	8,1	8,2	9,5	19
Familia med. eriz.	Hirikoak	17,0	18,2	19,5	20,7	19,0	17,5	3
	Landa esk. hand.	16,4	17,7	19,9	21,2	19,9	17,5	6
	Landa esk. ert.	15,2	15,6	17,3	19,2	17,8	16,6	9
	Landa esk. txik.	14,4	15,0	17,0	17,8	16,2	14,8	3
	Eskualde bereziak	9,6	9,5	11,0	10,7	11,0	10,7	12
Pediatriako eriz.	Hirikoak	11,2	11,5	13,7	15,4	13,7	11,6	3
	Landa esk. hand.	11,0	11,0	13,2	15,5	13,4	11,4	3
	Landa esk. ert.	9,7	10,4	11,9	14,6	12,2	11,8	18
	Landa esk. txik.	9,1	8,6	10,6	13,1	10,8	9,4	3
	Eskualde bereziak	7,3	6,3	9,7	7,8	6,6	6,6	-11

Agendak diseinatzean, kontsultei denbora gehiago eman zaie, eta, ondorioz, egunero hutsune gutxiago daude erabilgarri. Hori dela eta, oro har, fakultatiboen kasuan, eguneko batez besteko kontsultak gutxitu egin dira. Hala ere, erizaintzako langileen kasuan, oro har, eguneko batez besteko jarduerak gora egin du.

3.3.5 Herritarrek OOLrako irisgarritasunari buruz duten pertzepzioa**Herritarrei egindako gogobetetze inkestak**

O-NOZek gogobetetze inkesta bat egiten die urtero herritarrei, eta, besteak beste, OOLrako irisgarritasuna neurtzen du. Gure azterketa aldiko emaitzak honako hauek izan ziren:

	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Inkesta kop.	1.485	15.576	*	1.485	15.201	970
OOLrako irisgarritasunaren nota, 10etik	7,79	7,66		7,30	6,90	7,13

*2020an ez zen inkestarik egin COVID-19aren pandemiagatik.

Aztertutako aldian, herritarrek gero eta nota baxuagoarekin puntuatu dute OOLrako irisgarritasuna; dena den, 2023an pixka bat gora egin zuen 2022aren aldean, eta 7,13ra iritsi zen. Ostera, 2018an 7,79ko nota zuen.

Herritarrek OOLrako irisgarritasunari buruz egindako erreklamazioak

Herritarrek O-NOZen jasotako arretari buruzko erreklamazioak jartzeko aukera dute. Kudeaketa Klinikorako eta Laguntzaren Ebaluaziorako Zerbitzuak emandako informazioari jarraikiz, osasun barrutiaren arabera, herritarrek honako erreklamazio hauek aurkeztu dituzte irisgarritasunari buruz:

Osasun barrutia	Erreklamazioaren arrazoia	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Iruña	Zitazioa	37	46	45	46	54	54
	Erosotasuna-instalazioak	6	4	2	3	2	7
Tutera	Zitazioa	10	9	8	9	11	13
	Erosotasuna-instalazioak	1	1	2	3	3	2
Lizarra	Zitazioa	6	5	4	6	9	7
	Erosotasuna-instalazioak	-	1	1	-	-	-
Guztira	Zitazioa	53	60	57	61	74	74
	Erosotasuna-instalazioak	7	6	5	6	5	9

*"Zitazioa" eta "itxarote zerrenda" gisa katalogatutako erreklamazioak biltzen ditu.

2023an, zerbitzuaren irisgarritasunarekin lotutako erreklamazioak 74 izan ziren, 2018an baino ehuneko 40 gehiago. Instalazioetarako irisgarritasun fisikoari dagokionez, bederatzireklamazio aurkeztu ziren, 2018an jarritako zazpien aldean.

Erreklamazio horiez gain, O-NOZek emandako multzoan badira beste arrazoi orokor batzuk ere: "laguntza" eta "beste arrazoi batzuk". Horietan, argi zehaztutako arrazoirik gabeko erreklamazioak sartzen dira; baliteke irisgarritasunari buruzkoren bat egotea. Taula honek aztertutako aldiandako bilakaera erakusten du:

Osasun barrutia	Erreklamazioaren arrazoia	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Iruña	Laguntza	33	36	30	34	34	37
	Beste arrazoi batzuk	21	14	13	16	15	23
Tutera	Laguntza	8	7	7	7	7	8
	Beste arrazoi batzuk	2	2	2	3	2	2
Lizarra	Laguntza	4	4	3	5	8	5
	Beste arrazoi batzuk	1	2	1	1	2	2
Guztira	Laguntza	45	47	40	46	49	50
	Beste arrazoi batzuk	24	18	16	20	19	27

Erreklamazio orokor horiek, 2023an, 77 izan ziren, eta ehuneko 12ko hazkundera izan zuten 2018arekin alderatuta.

Azken batean, OOLko baliabideak erabiltzeari eta herritarrek irisgarritasunari buruz duten pertzepzioari dagokionez, kontsultara joan den OTI edo pertsona bakoitzaren maiztasunak behera egin du aztertutako aldiandian (erizaintzako langileen kontsulten kasuan izan ezik). Maiztasun hori pazientearen adinak baldintzatzen du —adin tarteen artean alde nabarmenak daude—, bai eta OEO motek ere —baliok handiagoak dira eskualde berezietan edo landa eskualde txikietan, eta txikiagoak hiriko eskualdeetan—.

Gainera, pazientearen arreta eredua aldatu egin da aztertutako aldiandian. Hala bada, herritarrek eskatzen dituzten eguneko hitzorduen arreta murriztu egin da, eta arreta programatua eta aurrez aurrekoa ez dena areagotu egin dira.

Herritarrek irisgarritasunari buruz duten pertzepzioak okerrera egin du aztertutako aldi osoan, nahiz eta 2023an zertxobait hobetu zen aurreko ekitaldiarekin konparatuta.

3.4 LAUGARREN HELBURUA. OOLRAKO IRISGARRITASUNEAN EKITATE PRINTZIPIOA BETETZEA, OSASUN ESKUALDE OINARRIZKOEN ARTEAN

3.4.1 OOLko baliabideak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera

Nafarroako Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 3. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako osasun laguntza publikoa edozein udalerritan bizi diren herritar guztiek jasotzen ahal dute, eta, gainera, sarbidea eta osasun prestazioak berdintasun eragingarriko baldintzetan emanen dira.

Jarraian, OEOen arabera hainbat adierazle aztertu ostean, emaitza erakutsiko dugu, sarbidean berdintasuna dagoen egiaztatzeko.

CIAS bakoitzari esleitutako OTiak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera

Txosten honen 3.1.1 atalean egiaztatu dugunez, CIAS bakoitzari esleitutako OTietan aldeak daude OEO kategorien artean.

Txosten honekin batera doan 5. eranskinak CIAS bakoitzari esleitutako OTiak jasotzen ditu EOEn arabera. Datu horiek aztertuta, honako hau azpimarratzen dugu:

- Alde nabarmenak daude CIAS bakoitzari esleitutako OTietan edo paziente kupoetan, hainbat arrazoiengatik: udalerrietako biztanleriaren banaketa, udalerrietako biztanleriaren adina, eskualde berezitat hartzea, etab.

- Taula honetan, lanbide kategoriaren arabera 2023an izandako balio maximoak eta minimoak agertzen dira:

	Balio minimoa (eskualde berezia)		Balio minimoa (berezia ez den eskualdea)		Balio maximoa	
	OEO	CIAS bakoitzeko OTiak	OEO	CIAS bakoitzeko OTiak	OEO	CIAS bakoitzeko OTiak
Familia med.	Zaraitzu	341		561	Lezkairu	2.026
Pediatria	Auritz	396	Los Arcos	376	Cascante	1.393
Erizaintza	Izaba	295		534	Aranguren	1.582

Muturreko datu horien haritik, honako hauek baldintzatuta egon daitezke: Aranguren eta Lezkairuko OEOak sortu berriak dira, eta Los Arcosko OEOan biztanleria sakabanatuago dago; izan ere, guztira, 1.838 OTI artatzen dira eta horiek 12 udalerritan daude banatuta.

OTIen eta benetako langile baliokideen arteko ratioa, osasun eskualde oinarrikoaren arabera

OEOen arabera aztertu dugu OTIen eta zerbitzuak eman dituzten benetako langile baliokideen arteko ratioa. Taula honek ratio horren bilakaera biltzen du, OEO¹² motaren arabera:

		2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/18 (%)
Fakultati- boa (fam. med. Eta pediatria)	Hirikoak	1.497	1.522	1.536	1.505	1.520	1.524	2
	Landa eskualde handiak	1.369	1.319	1.371	1.448	1.428	1.436	5
	Landa eskualde ertainak	1.069	1.035	1.082	1.128	1.166	1.179	10
	Landa eskualde txikiak	872	810	833	852	853	857	-2
	Eskualde bereziak	379	291	339	358	383	404	7
Langileak langileak	Hirikoak	1.430	1.434	1.345	1.261	1.266	1.228	-14
	Landa eskualde handiak	1.276	1.284	1.162	1.113	1.155	1.105	-13
	Landa eskualde ertainak	952	930	891	862	893	870	-9
	Landa eskualde txikiak	771	758	720	700	687	685	-11
	Eskualde bereziak	285	288	281	288	310	305	7
Langileak langileak	Hirikoak	2.561	2.594	2.522	2.432	2.399	2.386	-7
	Landa eskualde handiak	2.276	2.277	2.150	2.033	2.030	1.994	-12
	Landa eskualde ertainak	1.931	1.852	1.786	1.675	1.705	1.706	-12
	Landa eskualde txikiak	1.972	2.050	2.006	1.923	1.908	1.976	-
	Eskualde bereziak	1.138	1.119	1.096	1.112	1.155	1.127	-1

Fakultatiboen ratioak gora egin du kasu guztietan, hau da, bakoitzari OTI gehiago dagokio. Oro har, erizaintzako langileentzat aztertutako ratioa jaitzi egin da eskualde mota guztietan, eskualde berezietan izan ezik; alegia, kategoria horretako profesional bakoitzari OTI gutxiago dagokio. Administrazio langileen ratioa ere jaitzi egin da kasu guztietan.

Aldakuntzaren noranzkoa antzekoa bada ere eskualde mota guztietan, ehunekoak desberdinak dira. Alde horiek nabarmenagoak dira OEO bakoitza banaka hartzen badugu kontuan, txosten honen 6. eranskinean bezala. Taula honetan, lanbide kategoriaren arabera 2023ko muturreko datuak jaso dira:

	Balio minimoa (eskualde berezia)		Balio minimoa (berezia ez den eskualde- dea)		Balio maximoa	
	OEO	OTI / ben. lang. bal. ratioa	OEO	OTI / ben. lang. bal. ratioa	OEO	OTI / ben. lang. bal. ratioa
Fakultatiboak	Auritz	371	Antzin	638	Aranguren	2.048
Erizaintzako lang.	Izaba	285		464		1.535
Admin. lang.	Izaba	848	Zarrakaz- telu	1.332	Sarriguren	3.092

Alde horien arrazoiak CIAS bakoitzari esleitutako OTIen azterketaren kasuko berberak dira.

3.4.2 Itxarote denboraren azterketa, pazienteak eskatutako ekintza motaren eta osasun eskualde oinarrikoaren arabera

Pertsona batek hitzordua eskatzen duenetik hura izan arte itxaron behar duen denbora aztertu dugu, kontsulta arrunten eta aurrez aurrekoak ez direnen kasuan, hitzordua eskatzean lau egunetik gorako itxaronaldia borondatez onartu ez duten pertsonentzat.

¹² Azterketa horretan, modu bateratuan hartu dira kontuan familia-medikuntzako eta pediatriako langile fakultatiboak; izan ere, pediatriak falta direnez, familia-medikuntzako langile fakultatiboek artatzen dituzte pediatria-kupo batzuk.

Azterketan ez ditugu eguneko hitzorduak sartu, ekintza mota horretarako egun berean bakarrik hartzen ahal delako hitzordua. Horregatik, azterketa partziala izanen litzatekeela iruditzen zaigu. Etxeko hitzorduak ere ez ditugu aztertu, pazienteek eskatutakoak etxean egiten diren eguneko hitzorduak izaten direlako. Azterketatik kanpo utzitako hitzordu horiek, 2018-2023 aldian, ehuneko hauek zituzten, guztien artean:

Ekintza mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Eguneko hitzordua	24	23	13	15	19	21
Etxez etxeko kontsulta	4	4	4	4	4	4
Azterketan sartu ez diren kontsultak, guztien artean (%)	28	27	17	19	23	25

Jarraian, itxaronaldiak zenbat egunekoak izan diren erakutsiko dugu, aztertutako ekintza motaren eta OEO motaren arabera:

- Kontsulta arrunta:

Kontsult. langileak	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/18
Medikuak fakultatiboak	Hirikoak	2,8	3,2	2,7	3,1	3,9	5,2	2,4
	Landa eskualde handiak	2,1	2,5	2,0	2,1	2,6	3,3	1,2
	Landa eskualde ertainak	1,4	1,6	1,3	1,3	1,6	2,0	0,6
	Landa eskualde txikiak	1,1	1,2	1,0	1,0	1,2	1,4	0,3
	Eskualde bereziak	0,4	0,4	0,4	0,4	0,5	0,5	0,1
	Nafarroa, guztira	2,3	2,7	2,2	2,4	3,0	3,9	1,6
Medikuak fakultatiboak	Hirikoak	1,3	1,4	1,4	1,4	1,6	1,7	0,4
	Landa eskualde handiak	1,2	1,3	1,1	0,8	1,1	1,2	-
	Landa eskualde ertainak	1,0	1,0	1,0	0,9	0,9	1,1	0,1
	Landa eskualde txikiak	0,8	0,9	0,8	0,8	1,0	1,1	0,3
	Eskualde bereziak	1,0	1,3	1,1	1,3	1,4	0,8	-0,2
	Nafarroa, guztira	1,2	1,3	1,2	1,1	1,3	1,5	0,3
Familia medikuntzako erizaina	Hirikoak	2,7	2,8	2,9	3,4	3,1	3,5	0,9
	Landa eskualde handiak	2,0	2,3	2,9	2,7	2,8	3,1	1,1
	Landa eskualde ertainak	2,2	2,4	2,5	2,2	2,7	2,9	0,7
	Landa eskualde txikiak	1,5	1,6	2,0	1,9	2,3	2,6	1,1
	Eskualde bereziak	1,0	0,9	1,0	1,1	0,9	0,9	-0,1
	Nafarroa, guztira	2,3	2,5	2,8	2,9	2,9	3,2	0,9
Pediatriako erizaina	Hirikoak	4,8	4,7	4,3	3,8	3,4	3,4	-1,4
	Landa eskualde handiak	3,8	3,9	4,2	3,9	3,4	3,4	-0,4
	Landa eskualde ertainak	2,2	4,4	1,9	2,8	3,8	3,1	1,0
	Landa eskualde txikiak	3,8	3,3	2,5	2,4	2,8	2,6	-1,2
	Eskualde bereziak	4,1	3,4	2,6	2,1	2,0	2,3	-1,9
	Nafarroa, guztira	4,3	4,2	3,9	3,5	3,2	3,2	-1,1

Aldi horretan, kontsulta arruntetako itxarote denborak gora egin du kasu guztietan, pediatriako erizainen kontsultetan izan ezik, 1,1 egun gutxiago baita. Igoera hori desberdina da kontsulta egiten duten langileen arabera; familia medikuntzako fakultatiboek egindakoen kasuan, 1,6 egun gehiago da, baina pediatriako fakultatiboek egindakoenean, 0,3 egun gehiago.

Emaitzak OEO motaren arabera aztertuz gero, alde nabarmenak daude haien artean, itxaronaldiak luzeagoak baitira hiriko eskualdeetan gainerako kategorietan baino, eta horietatik eskualde bereziek dituzte balio txikiak. Adibide gisa, 2023an familia medikuntzako fakultatiboekin kontsultak egiteko itxarote denbora 5,2 egunekoa zen hiriko eskualdeetan, eta 0,5 egunekoa eskualde berezietan.

- Aurrez aurrekoa ez den kontsulta:

Langi-leak kategoria	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/18
Medikuak fakultati- boa	Hirikoak	1,0	1,2	1,3	2,0	2,2	3,0	2,0
	Landa eskualde handiak	0,7	1,0	0,9	1,5	2,0	2,5	1,8
	Landa eskualde ertainak	0,4	0,6	0,5	0,9	1,1	1,4	1,0
	Landa eskualde txikiak	0,3	0,3	0,4	0,6	0,7	1,1	0,8
	Eskualde bereziak	0,2	0,2	0,1	0,1	0,1	0,2	0,0
	Nafarroa, guztira	0,8	1,0	1,1	1,6	1,8	2,5	1,7
Medikuak fakultati- boa	Hirikoak	0,4	0,6	0,4	0,5	0,7	1,0	0,6
	Landa eskualde handiak	0,4	0,4	0,3	0,4	0,5	0,8	0,4
	Landa eskualde ertainak	0,2	0,3	0,2	0,2	0,5	0,6	0,4
	Landa eskualde txikiak	0,2	0,2	0,2	0,2	0,3	0,6	0,4
	Eskualde bereziak	0,4	0,2	0,3	0,6	0,2	0,3	-0,1
	Nafarroa, guztira	0,4	0,5	0,3	0,4	0,6	0,9	0,5
Familia medikun- tzako erizaina	Hirikoak	0,3	0,4	0,5	0,6	0,6	0,8	0,5
	Landa eskualde handiak	0,4	0,5	0,6	0,8	0,7	0,7	0,3
	Landa eskualde ertainak	0,1	0,1	0,3	0,4	0,3	0,4	0,3
	Landa eskualde txikiak	0,2	0,2	0,3	0,3	0,3	0,3	0,1
	Eskualde bereziak	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,3	0,1
	Nafarroa, guztira	0,4	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,2
Pediatriako erizaina	Hirikoak	0,3	0,4	0,5	0,5	0,4	0,5	0,2
	Landa eskualde handiak	0,2	0,3	0,4	0,4	0,3	0,3	0,1
	Landa eskualde ertainak	0,1	0,2	0,3	0,5	0,2	0,3	0,2
	Landa eskualde txikiak	0,3	0,3	0,3	0,4	0,3	0,3	0,0
	Eskualde bereziak	0,0	0,0	0,3	0,4	0,1	0,1	0,1
	Nafarroa, guztira	0,3	0,3	0,4	0,4	0,4	0,4	0,1

Kasu horretan, itxaronaldiak ere gora egin du, baina igoyerak kontsulta arruntetan baino txikiagoak izan dira. Igoera esanguratsua kasu bakar batean egon da, hots, familia medikuntzako fakultatiboekin egiten diren eta aurrez aurrekoak ez diren kontsultetan; 1,7 egun gehiago da.

Berriz ere alde nabarmenak daude itxarote denboren artean, OEO motaren arabera. Aurreko patroia errepikatzen da: hiriko eskualdeetan egun gehien eta eskualde berezietan gutxien. Hala, 2023an, familia medikuntzako fakultatiboekin kontsulten itxaronaldia hiru egunekoa zen hiriko eskualdeetan, eta 0,2 egunekoa eskualde berezietan.

Familia medikuntzako kontsultarako itxarote egunak

Familia medikuntzako kontsultekin dagoen problematika dela eta, urte bakoitzean emandako hitzorduen ehunekoa itxarote egunen arabera aztertu dugu, baina azterketan ez ditugu eguneko hitzorduak sartu, lehen azaldutako arrazoi beragatik:

Hitzorduen ehunekoa, emandako guztien artean							
Itxarote epea (egunak)	2018	2019	2020	2021	2022	2023	
Egun berean	47	45	5	53	48	43	
Hurrengo egunean	24	23	20	20	19	17	
Bi egunera	11	11	8	9	9	9	
Hiru egunera	6	6	4	5	6	6	
Lau egunera	3	4	2	3	4	5	
Bost egunera	2	3	2	2	3	4	
Sei egunera	1	2	1	2	2	3	
Astebete edo gehiago	4	6	4	7	9	14	

Itxarote egunen zifrak nabarmen okertu direla ikusten da. Horrela, 2018an, bi egunera baino gutxiagora emandako hitzorduen ehunekoa ehuneko 71 zen, eta astebetera baino gehiagora emandakoak, berriz, ehuneko lau. Hala ere, 2023an, bi egunera baino gutxiagora emandako ehunekoa ehuneko 60 zen, eta astebetera baino gehiagora emandakoak ehuneko 14.

Taula honetan, bi egun baino gutxiagoko epean emandako kontsulten kasuan eta astebetetik gorako epean emandakoen kasuan ehuneko horietan dauden aldeak erakusten dira, OEO motaren arabera:

	OEO mota	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Ald. 2023/2018
< 2 egun	Hirikoak	64	60	73	66	59	51	-13
	Landa eskualde handiak	76	70	81	74	66	60	-16
	Landa eskualde ertainak	84	83	90	88	84	78	-6
	Landa eskualde txikiak	88	86	90	86	82	79	-9
	Eskualde bereziak	95	95	97	96	95	93	-2
> 7 egun	Hirikoak	6	8	6	10	13	20	14
	Landa eskualde handiak	3	4	3	5	7	11	8
	Landa eskualde ertainak	2	2	1	2	3	4	2
	Landa eskualde txikiak	2	2	1	2	3	4	2
	Eskualde bereziak	0,5	0,7	0,5	0,4	0,5	0,7	0,2

Hiriko eskualdeetan, zifrak askoz ere modu adierazgarriagoan okertu dira, eta, horrez gain, gainerako OEOek baino balio nabarmen okerragoak dituzte. Esate baterako, 2023ko hitzorduen ehuneko 20 eman ziren astebetetik gorako epean. Ostera, eskualde berezien kasuan zenbateko hori ehuneko 0,7koa da, eta landa eskualde ertain eta txikienean, ehuneko laukoa.

Gure azterketan eguneko hitzorduak eta etxez etxeko kontsultak sartzen baditugu, ehunekoek honako bilakaera hau izan dute aldi horretan:

Itxarote epea (egunak)	Hitzorduen ehunekoa, emandako guztien artean					
	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Egun berean	66	64	64	6	60	59
Hurrengo egunean	17	16	18	17	15	13
Bi egunera	7	7	7	7	7	6
Hiru egunera	4	4	3	4	4	4
Lau egunera	2	3	2	3	3	3
Bost egunera	2	2	2	2	2	3
Sei egunera	1	1	1	1	2	2
Astebete edo gehiago	3	4	3	6	7	9

2018an, bi egun baino gutxiagoko epean emandako hitzorduak ehuneko 83 ziren, eta 2023an, berriz, ehuneko 72. 2018an, astebetetik gorako epean emandako kontsultak ehuneko hiru ziren, eta 2023an, aldiz, ehuneko bederatzi.

3.4.3 Agendetako hutsune libreak, osasun eskualde oinarrizkoaren arabera

Agendetako hitzorduen eskuragarritasuna osasun eskualde oinarrizkoen arabera aztertu dugu, eta 2024ko lau une hartu ditugu erreferentziatzat: martxoaren 24a, maiatzaren 19a, maiatzaren 26a eta ekainaren 3a.

Data horietarako, hitzordu guztietatik libre zeuden hitzorduen ehunekoa lortu dugu, hainbat epe erreferentziatzat hartuta (egun bat, bi-hiru egun, lau-zazpi egun eta astebetetik gora). Hauexek dira:

	Familia med. fak.		Pediatriako fak.		Familia med. eriz.		Pediatriako eriz.	
	Hutsune li-break (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune li-break (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune li-break (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune libreak (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)
Egunean bertan	49	51	64	74	50	77	66	88
2-3 egunera	57	58	77	85	68	84	75	92
4-5 egunera	65	65	84	89	76	88	79	94
7 egun baino gehiagora	86	69	90	95	88	93	86	96

Familia medikuntzako fakultatiboekin hitzordua hartzeko hutsune libreen ehunekoa, orokorrean, lanbide kategoria guztietako baxuena da, eta pediatriako erizainena, berriz, altuena.

Bestalde, dagoeneko hartuta dauden hutsuneen artean, oro har, programatutako hitzorduen ehunekorik baxuena familia medikuntzako fakultatiboena da, eta altuena pediatriako erizainena.

Jarraian, OEO motaren arabera emaitzak behatuko ditugu:

OEO mota	Familia medikuntzako fak.		Pediatriako fak.		Familia med. erizaina		Pediatriako erizaina	
	Hutsune libreak (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune libreak (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune libreak (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)	Hutsune libreak (%)	Hitzartuak, hartutako hutsuneen artean (%)
Hirikoak	43	51	63	71	47	75	64	88
Landa esk. handiak	47	45	67	79	46	78	66	88
Landa esk. ertainak	60	62	64	73	56	83	67	88
Landa esk. txikiak	62	58	64	84	64	79	75	87
Eskualde bereziak	76	74	64	-	74	92	-	-
Hirikoak	50	56	76	84	66	83	74	82
Landa esk. handiak	56	56	78	87	67	84	73	92
Landa esk. ertainak	73	69	78	89	71	89	79	93
Landa esk. txikiak	73	71	78	86	78	88	83	91
Eskualde bereziak	84	95	91	91	84	95	80	94
Hirikoak	58	61	83	87	75	87	82	95
Landa esk. handiak	66	63	85	92	75	88	82	95
Landa esk. ertainak	77	81	87	95	79	91	81	90
Landa esk. txikiak	79	80	86	86	83	91	86	96
Eskualde bereziak	85	97	91	100	87	99	85	96
Hirikoak	83	65	90	94	88	93	86	97
Landa esk. handiak	87	70	90	95	85	93	90	95
Landa esk. ertainak	93	82	91	97	88	95	83	94
Landa esk. txikiak	93	86	93	96	91	94	93	65
Eskualde bereziak	96	97	95	100	93	98	95	100

OEO moten artean, alde nabarmenak daude kalkulatuak ehunekoei dagokienez; esate baterako, familia medikuntzako langileekin egiten diren eguneko kontsultetan, hutsune libreen ehunekoa ehuneko 43 da hiriko eskualdeetan, eta ehuneko 62 edo 74 landa eskualde txikietan edo berezietan, hurrenez hurren. Joera hori errepikatu egiten da aztertutako lanbide kategoria guztietan.

3.4.4 Telefono bidezko irisgarritasuna, osasun eskualde oinarrikoaren arabera

SOLIDUS softwarearekin lotutako proiektu bat garatzen ari da O-NOZ (dei zentroak kudeatzeko softwarea da), eta, proiektuaren barruan, OOLko telefonia finakoaren bilakaerarako programa bat lantzen ari da.

Txosten hau idatzi den egunean, 31 osasun etxek dute SOLIDUS tresnarekin kudeatutako dei zentro bat —1. eranskinean jaso ditugu—. Osasun etxe horiek OTIa duten Nafarroako biztanleen ehuneko 65 artatzen dute.

O-NOZek ordutegi tartearen arabera banatutako zenbait adierazle eman zizkigun herritarrek 2024ko martxoaren 11tik 15era bitarteko astean osasun etxe horietara egindako deiei buruz.

Egun bakoitzean emaitza hauek bildu ziren:

	Egindako deiak	Baztertutako deiak	Jasotako deiak ¹³	Erantzun-dako deiak	Deitzen duten pertsona desberdinak
Astelehena: 2024/03/11	39.339	23.159	16.173	8.399	10.886
Asteartea: 2024/03/12	20.526	9.524	11.331	7.169	8.669
Asteazkena: 2024/03/13	13.443	3.353	10.090	6.421	7.857
Osteguna: 2024/03/14	11.460	1.263	10.197	6.164	7.531
Ostirala: 2024/03/15	12.093	3.168	8.925	5.366	6.643
Guztizko orokorra	96.861	40.467	56.716	33.519	41.586

Osasun etxe horiek 96.891 dei jaso zituzten, eta horietatik ehuneko 41 astelehenean egin ziren. Gainerako egunetan, deien kopuruak behera egiten du, ostiraletan izan ezik, berriro gora egiten baitute. Guztira, 41.586 pertsonak deitu zuten; hau da, pertsona bakoitzeko 2,3 dei egin zituzten, batez beste.

Taula honetan, 31 osasun etxeetako datuak bildu ditugu, bi denbora tartetan banakatuta —kontuan izanda 08:00etatik 09:00etara deien kontzentrazio handia egoten dela—:

	Deiak, guztira	Baztertutako deiak	Jasotako deiak	Erantzun-dako deiak	Artatuak izan ez diren pertsonak	Dei egile desberdinak
08:00-09:00	59.585	40.452	19.049	10.077	1.955	12.032
Gainerako orduak	37.276	15	35.219	23.442	6.112	29.554
Guztira	96861	40.467	54.268	33.519	8.067	41.586

*Guztizko deiak ez datoz bat baztertutako eta jasotako deien baturarekin; izan ere, kasu batzuetan, osasun etxeek ez dituzte zenbatzen pazienteari arreta administratiboa emateko ordutegitik kanpo egindako deiak.

08:00etatik 09:00etara bitartean egin ziren deien ehuneko 62. Tarte horretan, 12.032 pertsonak deitu zuten, alegia, 4,95 dei pertsona bakoitzeko, batez beste. Gainerako orduetan, aldiz, 1,26 dei egin ziren pertsona bakoitzeko, batez beste.

Dei horiei dagokienez, bi kontu aipatu nahi ditugu:

- Ezin dugu zehaztu zertarako egin ziren; izan ere, herritarrek hitzordua eskatzeko edo beste arrazoiren batengatik deitzen ahal dute osasun etxera. Dena den, 08:00etatik 09:00etara izaten diren dei gehienak hitzordua hartzeko izaten dira.

- Deia erantzun izanak ez du esan nahi deia egin duen pertsonak hitzordua lortu duenik, eta ez dago hori jakiteko aukerarik.

